

A-1 AUTOBIDEA: ABENDUAREN 19AN EDO 20AN ZABALDUKO DUTE /5

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2003ko azaroaren 21a • IV. urtea

132. zenbakia • DOAN BANATZEKO

**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**

MARIA ANGELES ALVAREZ
"Emakumeek ez dituzte tratu txarrak salatzen, heriotza mehatxupean bizi direlako" /9



DEBAGOIENA
 Debagoiendarrak ere
 Parisen, Europako
 Gizarte Foroan /7

Goienka2a
 Arrasateko Tailaginen
 Elkarteak erakusketa
 zabaldu du

European Newspaper AWARD
 NEWSPAPER DESIGN

Europako diseinu onenaren saria eman diote GOIENKARIARI

Europako diseinurik onenaren saria jaso du GOIENKARIAK, tokiko prentsaren alorrean, European Newspaper Award (Newspaper Design 2003) sariketa prestigiotsuan. Lehiaketara Europako 22 herrialdetako 331 idatzizko hedabide aurkeztu dira. /3

ASTEKO GAIA: DEBAGOIENENKO OSPITALEAREN ERABERRITZEA /2-3

Ibarreko ospitalea, sareko onenetakoa

Debagoieneko ospitaleak pasaden astean jaso zuen ISO 9001-2000 kalitate ziurtagiria, erabiltzaileoi hainbat arlotan zerbitzu bikai-

na emateagatik. Bestalde, lorpen handiak egin ditu azkenaldian sail askotan, batez ere, Traumatologian, eta Osakidetzako emai-

tza onenetarikoak lortu ditu. Bide horretan, Pneumologia eta Endokrinologia zerbitzuak zabalduko dituzte ospitalean.



GORKA ETXABE

ISO ziurtagiria jaso du oraingo astean Debagoieneko eskualde ospitaleak. Argazkian, ospitaleko arduradunak.

Manifestaziorako dei egin dute, atxiloketak direla-eta protestatzeko

Oraingo astean Debagoiengan eta Frantzian egin dituzten atxiloketen aurka protesta egiteko manifestaziorako dei egin dute zapatarako. Arrasaten izango da manifestazioa, 19:00etan, Seber

Altubetik abiatuta. Gogoratuko duzuen moduan, astelehenean Igor Letona atxilotu zuten Frantzian; bestetik, Arrasaten, Saioa Alzua eta Gaizka Azkarate atxilotu zituzten, martitzenean. /7

OÑATI
Bidegorriak egiteko sinadurak batzen dabil talde bat

Egunero bizikleta erabiltzea aldarrikatzen duten Oñatiko hainbat lagun elkartu dira, eta euren helburu nagusia da Oñatirako bidegorria lortzea. Bestelako eskakizunak ere badituzte, hala nola: Udalarri eskatzen diote urbanizazio lanak egiten dituztenean, kontuan har ditzala bizikletan ibiltzen diren herritarrak. /8

KOLOREAREN BILA

Atai

Tel.: 943 79 81 66
 E-mail: atai@vianwe.com
 ARETXABALETA

Zoloretako ploteoak, mugarik gabeko neurrietan eta plastifikatuta, luma-kartoian jarrita edo display-rik egokienetan.

GAZTE MODA

LEIZE ZE

Secundino Esnaola 13 DONOSTIA Fraiskozuri 5 BERGARA Olarte 5 ARRASATE

NAFARROATIK EUSKAL HERRIRA, ESKUINETIK EZKERRERA

AUTODETERMINAZIOAREN ALDEKO EKITALDIA, NAFARROAREN EGUNA OSPATZEKO

**Iruñeako LABRIT pilotalekuan
Azaroaren 29an, zapatua, 19:00etan**

Hizlariak:

- Txillardegi

- Arazo larriak dituzten enpresa nafarren ordezkariak

- Presoen senideen testimonioa

- IRATZARRI, Aralarko Gazteen ordezkaria

- Abertzaleen Batasunako (AB) Richard Irazusta

- Patxi Zabaleta

Musika ekitaldi, abeslari eta bestelako animaziorik ez da faltako. Azken orduko sorpresa eta guzti!

DEBAGOIENATIK AUTOBUSAK ANTOLATUKO DIRA.

Animatu eta parte hartu NAFARROAREN EGUNA ospatzeko antolatutako ekitaldian.

Eskuindar nazionalista espainiarrek konstituzioaren urteurrena ospatzeko erabili nahi dute eguna.

Abertzale ezkertiarrok aldarrika dezagun NAFARROA dela Euskal Herriaren bihotza

Informazio gehiago: 660 40 64 74 edo 660 40 64 76 telefonoetan.



ARALAR



laster

Debagoiena *esku-eskura*

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

Diseinurik onenaren saria jaso du GOIENKARIAk Europa mailan

European Newspaper Award lehiaketa prestigiotsuan, tokiko hedabideen sailean

GOIENKARIA

Diseinurik onenaren saria jaso du GOIENKARIAk Europako tokiko prentsaren alorrean, European Newspaper Award (Newspaper Design 2003) sariketa prestigiotsuan. Lehiaketara Europako 22 herrialdetako 331 idatzizko hedabide aurkeztu dira, maiztasun eta zabalkunde eremu askotarikoak.

GOIENKARIAz gain, beste hauek ere saritu dituzte: *Heraldo de Aragón*, erregio mailako egunkari onenaren saria; *Il Corriere della Sera* italiarra, nazio mailako onenarena; *Sunday Tribune* irlandarra, astekari onenarena; eta, Galiziako *La Voz de Galicia* egunkaria, epaimahaiaren aitoren sari berezia, *Prestige* petroliontzia sortutako hondamenaren gainean egindako jarraipenarengatik.

Horiek izan dira sari nagusiak, baina Europako 18 herrialdetako beste 87 periodikok ere jaso dituzte diseinuaren kalitatearen gaineko aipamen bereziak, egunkarien azalengatik, barruko orrialdeengatik, erabiltzen dituzten letra tipo, infografia edo argazkiengatik, gehigarriengatik edota orrialde bereziengatik. Aipamen berezi hauetako bat jaso dutenen artean daude honako hauek: Britainia Handiko *The Guardian* eta *The Independent*, Portugalgo *Diario de Noticias*, eta Estatu Espainolekoen artean, *El Periódico de Catalunya*, *Diario de Mallorca*, *La Voz de Galicia* edo *El Correo* bilbotarra.



GOIENKARIA Europako beste hainbat aldizkarekin batera saritu dute, diseinu onagatik, European Newspaper Award lehiaketan.

BOSGARREN URTEA

Prentsa Diseinuko Bulegoak urterotara saritzen ditu Europako argitalpenen diseinu onenak. Aurten bosgarren aldia da lehiaketa hau antolatzen dutena. GOIENKARIAk iaz hartu zuen parte lehen aldiz lehiaketan eta aipamen berezi bat jaso zuen; hain justu ere, sailtetako azalen atalean, GOIENKARIAko kultura eta

aisialdiaren gaineko *Goienka2a* atalaren azala saritu zuten. Oraingoan, sari nagusietako bat lortu du, tokian tokiko Europako argitalpen onenaren saria.

SARI BANAKETA VIENAN

Europa mailako prentsa idatzizko argitalpenen bikaintasuna saritzea du helburu lehiaketa honek. Bi egunkari dira lehiaketa honen

bultzatzaileak: batetik, *Medium Magazin* alemaniarra eta, bestetik, *Der oesterreichische Journalist* austriarra, biak hala biak informazioa jorratzen duten profesionalen zuzendutakoak. Lehiaketaren beste bultzatzailea Norbert Küpper prentsa diseinugilea da.

Iaz sari banaketa Alemaniako Aachen (Akisgran) hirian egin zen. Sari banaketarekin batera

idatzizko prentsaren diseinuaren gaineko jardunaldiak ere antolatu ziren. Han elkartu ziren Europako prentsa diseinugilerik, infografistarik eta arte zuzendaririk ezagunenetakoak. Eta, han izan ziren GOIENKARIAko diseinutaldeko Goio Arana eta Iñaki Iturbe ere. Oraingoan, sari banaketa Vienan egingo dute. Datorren urteko martxoan izango da hori.

Europako diseinurik onenak

TOKIKO ARGITALPENAK

Goienkaria
Euskal Herria

ESKUALDEKO ARGITALPENAK

Heraldo de Aragón
Aragoi

NAZIOKO ARGITALPEAK

Il Corriere della Sera
Italia

EUROPAKO ARGITALPENAK

Sunday Tribune
Irlanda

EPAIMAHAIAREN AIPAMEN BEREZIA

La Voz de Galicia
Galizia

GOIO ARANA / GOIENKARIA-REN DISEINUGILEA

“Gu beti konplexu barik diseinatzen saiatu gara”

Pozik hartu du GOIENKARIAren diseinua egin duen Goio Aranak European Newspaper Award (Newspaper Design 2003) sariketako emaitzak.

Zer adierazten du zuretzako sari honek?

Poztasun handia, kanpoan norberak egiten duen lanarekin erreparatzea beti da pozgarria-eta. Bestalde, orain arte saritu dituztenak ikusita, bertigo apur bat ere sentitzen dut.

Eta GOIENKARIA moduko euskarzko tokiko hedabide batendako?

Gauza pozgarria da euskarzko medio bat hitz politen eta positiboan artean ikustea behingogatik bada ere. Nik herriko aldizkarien urte askotako lanari emandako saria bezala ikusten dut; tokiko aldizkarien garrantzia eta betebeharra saritu dela uste dut.



Goio Arana.

GOIENKARIA

Iaz ere eman zioten sari bat GOIENKARIAri, ezta?

Bai, halaxe da. Iaz *Goienka2a*-n egin genituen azalengatik Barruko Atalen sari bat jaso genuen. Oraingoan, berriz, produktu osoa saritu dute, hau da, GOIENKARIA oso-osorik hartuta. Iaz saria jasotzerakoan komentatu ziguten oso inpresio ona hartu zutela gure astekaria jasotzerakoan, eta finalistaren artean egon girela aitortu ziguten.

Zein da GOIENKARIAren ekarpenik azpimarragarriena, diseinuari dagokionez?

Izan daiteke medio txikia izan arren ez gairela konformatu medio txikiak normalean izaten duten itxurarekin. Beti borrokatu izan dugu *txikia beraz zatarra* ideien kontra. Konplexu barik diseinatzen saiatu gara beti, txikitasunean handi ere izan gaitezkeela sinistuta.

Zer garrantzia dauka diseinuak idatzizko prentsan?

Niretzako garrantzi handia du. Esparru guztietan itxura oso inportantea dela argi dago gaur egun. Eduki egokirik ez badago jai dugu diseinugileok. Esango nuke tokiko medioek abantaila handia dugula edukien kontu honetan, jendeak bere inguruan gertatzen diren gauzak jakin nahi ditu-eta.

Uste duzu irakurleek oro har aintzat hartzen dutela diseinuaren arloan periodikoei egiten duten ahalegina?

Nik baietz esango nuke. Egia da jendea ohitu egiten dela ematen zaionari, baina behin gauza politak eta onak jasotzen ikasita dagoenean oso zaila da zatarrekin konformatzea. Nik uste dut eskaera maila igo egiten dela produktoren kalitatearekin batera, eta hori ona da.

Ibarreko ospitalea, sa

- Egun berean egin daitezke kontsulta eta tratamendua
- Traumatologia saileko erizain zerbitzua, hobe eta azkarragoa
- Bi zerbitzu berri daude: Endokrinologia eta pneumologia
- Urologia sail egonkorra lortu nahian dabil ospitalea



DEBAGOIENENKO OSPITALEA

Sei medikuk eta erizain espezializatuak osatzen dute Debagoieneko Ospitaleko Traumatologiako lan taldea.

LEIRE KORTABARRIA

Orain dela bi urte, berrehun lagun zeuden Debagoieneko ospitaleko traumatologia ebakuntza baten zain. Eta gaur egun, 30 bat gaixo bakarrik daude itxoi-te zerrenda horretan. Izan ere, itxoi-te zerrendan hilabete baino gutxiago egoten dira gaixoak, batez beste, eta hori, hain zuzen ere, Osakidetzako sare osoko emaitza onena da.

Lorpen hori oso denbora laburrean lortu du gure ibarreko ospitaleak, batez ere, Traumatologia sailean. Baina ez da espezialitate horrek izan duen hobekuntza bakarra.

KONTSULTA, EGUN BAKARREAN

Oso urte gutxian, Debagoieneko ospitaleko traumatologia zerbitzuak harro egoteko moduko lorpenak izan ditu. Besteak beste, Osakidetzako sareko tasa baxuena du gerriko eta belauneko protesi kasuetako konplikazioe-

tan; Traumatologia saileko erizaintza zerbitzua hobe eta azkarragoa da; gaixoen euren iritzi ona azaldu dute ospitaleak egingandako iritzi inkestetan...

Hori guztia Debagoieneko ospitaleak orain dela urte batzuetatik indarrean duen kalitate

hobekuntza egitasmo baten barne dago. Horren ildotik, erresoluzio altuko kontsulta sistema dago abian, ospitaleko beste sail guztietan bezalaxe: horrek esan nahi du gaixoak lehen kontsulta egiten duen egunean bertan jasotzen duela tratamendua.

Iraganeko kontua dira itxoi-te zerrenda bukaezinak eta medikuarengana behin eta berriz itzuli behar izatea. Azkartasun hori egiaztatzen da ez bakarrik erresoluzio altuko kontsulten bidez, baizik eta ebakuntza kasuetan ere. Honela diosku Luis Sanado Traumatologia saileko zuzendaria: "Kasuen berezitasunek eta gaixoaren baldintzek ahalbidetzen badute, ospitalera etortzen da, ebakuntza egiten diogu eta egunean bertan bueltatzen da etxera. Hurrengo egunean, erizainak dei egiten dio bere egoeraren berri jasotzeko eta errebisio baterako. Ospitalean denbora laburragoa pasatzeak esan nahi du zerbitzua hobe dela".

Traumatologia saila da aurrerapen handienak egin dituen Ospitaleko zerbitzua

Gaixoak lehen kontsulta egin eta egun berean jasotzen du tratamendua, sail guztietan

Traumatologiako itxoi-te zerrendan 30 lagun bakarrik daude; orain bi urte, 200 zeuden



Hilarion
jatetxea-taberna

Larrea plaza 5 • ARRASATE • 943 77 01 69

Eguneko menuak
Karta zabala
Era guztietako bazkari eta afariak
Taldea gazteendako prezio bereziak
Plater konbinatuak / Ogitartekoak / Sandwichak

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Teknologia berrienari esker, analisi biomekanikoak egiten ditugu. Zure oinendako kirol plantilla eta plantilla ortopediko erosoan neurria izango dituzu. Galdetu konpromiso barik.

Zure oinen erosotasuna, gure bermea.



Barrenkale 15-17
Tel./Faxa: 943 76 25 03
BERGARA



Gabonetako
Loteria dugu

Enkarguak hartzen dira.
Sobretxoak gertu.
Zorte on!

IRIZAR ESTANKOAK

Foruen enparantza 6 Tel.: 943 78 00 15 OÑATI

re osoko onenetakoa

Honek hainbat mesfidantza piztu lezake; izan ere, doktoreak berak dioen bezala, "jende askok uste du ospitalean egonaldi luze-agoak zerbitzu hobea esan nahi duela, baina aurkakoa da, hain justu ere: gaixoa egunean bertan etxera joan ahal izatea aurrera-pauso handia da".

Erresoluzio handiko kontsul- tei dagokienez, gaixoak tra- tamendua jasotzen du egunean bertan, edo bigarren proba osa- garri bat eskatzen da, ibarrean ezin daitekeena egin.

Azkenik, beste hobekuntza garrantzitsu bat da erabiltzaile- ari eskainitako informazio zer- bitzua: batetik, Traumatologia Erizaintza kontsultak indarrean jarri dira; bestetik, gaixoek ira- kurri eta sinatu beharreko bai- menak "modu argiagoan eta uler- terrazagoan daude orain, euskaraz eta gaztelaniaz", diote arduradunek.

EREDU, OSAKIDETZAKO SARE OSOAN

Traumatologia zerbitzuak izan duen eraberritzea, hortaz, eredu da osasun sare publikoko beste ospitale batzuekiko. Ez hori bakarrik: nazioartean ere berriak diren hainbat alderditan dihar- du lanean.

Ospitaleak baimena jaso berri du ehunak atera eta gordetzeko, eta bere ehun banku propioa egi- teko. Hori baliagarri da ehun inplanteak egiteko -batez ere, hezur inplanteak- beharrezkoa denean. Orain arte, Arantzazu eta Galdakaoko ospitaleekin elkar- lanean aritzen zen Debagoiene- ko zentroa, eta haiei eskatu behar zizkien behar zituen ehunok. Orain, aldiz, bertan egindako

ebakuntzotan lortutako ehunak gorde ahal izango ditu berriro era- biltzeko.

Beste alderdi berri bat da Mikel Sanchezek ezagun egin- dako hazkuntza faktoreen era- bilpena. Izen tekniko horrek adie- razten duena da, modu samu- rrean esanda, gaixoaren odola atera eta, tratamendu berezi baten bidez, odol horretako hain- bat elementu erabiltzen hezu- rren hezkuntzari laguntzeko. Datorren urteotan sakontzeko eta hedatzeko alorrak izango dira hauek biak Debagoieneko ospi- talearendako, bada.

UROLOGIA, HURRENGO PROPOSAMENA

Ospitaleko Traumatologia saile- ko hobekuntzak ospitaleak berak azken urteotan ekindako erabe- rritze egitasmoaren barne dau- de. "Gure helburua da deba- goiendarrok hobeto ezagutzea euren ospitalea, eta harro egon daitezela", diote Debagoieneko ospitaleko arduradunek.

Nabarmetzen duten alder- dietako bat da erabiltzaileei emandako zerbitzua; horregatik, hain zuzen, eman berri diote ISO 9001-2000 ziurtagiria.

Sartu nahi dituzten hobe- kuntza guztiak ez daude guztiz ospitalearen esku; izan ere, "pro- posamenak Osakidetza-ri egin behar dizkiogu, eta eurek onar- tu behar dituzte guk indarrean jartzeko". Euren erronka bat da, adibidez, Urologia zerbitzua eskaintzea. "Mahai gainean dago", dio Jose Luis Angulok. Bestalde, azken hilabeteotan txer- tatu da Endokrinologia zerbi- tzua, eta abenduan zabalduko da Pneumologia saila.

LUIS SANADO / TRAUMATOLOGIAKO ARDURADUNA

"200 larrialdetik, 18 bakarrik ezin izan ditugu atenditu"

Luis Sanado doktorea ospitaleko Traumatolo- gia zerbitzuko zuzenda- ria da. Nafarroako Uniber- sitatean hezi zen eta Iruñe- ko Ospitalean, Nafarroako Ospitalean eta Gasteizko San- tiago Apostol Ospitalean egin du lan.

Nortzuek osatzen duzue Traumatologia saila?

Fontaneda eta Garcia dok- toreak eta ni neu azken urteot- an iritsi gara, eta lehendik ziharduten Galartza, Bedia eta Azkarate doktoreekin osatzen dugu mediku taldea. Erizaintza taldeak oso rol garrantzitsua du, eta erizain espezializatuak ere gure taldeko zati dira.

Zein motatako kasuak atenditzen dituzue?

Ume zein nagusien trauma- tologia eta ortopedia kasuak lan- tzen ditugu. Jaioberriak ere atenditzen ditugu. Gure zerbi- tzuen premian dagoen popula- zioaren %90 baino gehiago aten- ditzen dugu. Urte osoan, 200 larrialdetik, 18 bakarrik bidali behar izan ditugu beste ospita- le batera.

Beste sail batzuekin elkar- lanik egiten duzue?

Bai: hain zuzen ere, Erre- umatologia eta Errehabilitazio sailekin lan egiten dugu; baita



"Ebakuntzetan, errendimendua Osakidetza- aholkatutakoaren gainetik dago"

larrialdi zerbitzuko medikue- kin ere. Familiako hainbat medi- kuren heziketan ere parte har- tzen dugu.

Badago tratatzen ez ditu- zuen gaixotasun edo kasurik?

Ume oso-oso txikien kasuan bakarrik, edo kasuak konplika- zio asko dituenetan, bidaltzen dugu gaixoa beste ospitale bate- ra. Baita hezurretako edo ehun

bigunetako tumore gaiztoen kasuetan, edo talde berezien lana eskatzen duten hainbat kasutan ere (eskoliosia edo trauma- tismo askoko kasuak). Hala ere, azken urteotan, hainbat eba- kuntza mota berriro egiten hasi gara: hala nola, bizkarrezurre- ko ebakuntzak.

Zeintzuk izan ziren zuen saileko emaitzak 2002an?

Kanpoko kontsultan, 10.672 gaixo atenditu genituen iaz; aur- tengu urtarriletik irailera, kopu- ru hori %3,31 igo da.

Bestalde, iaz 767 gaixo ingre- satu genituen, eta alde zurre- tik programatutako 504 eba- kuntza eta larrialdietako 215 egin genituen. Bestalde, gure gaixoen ospitalean emandako denbora, batez bestean, 4,47 egu- nekoa izan zen; aurtun, 4 egu- nekoa da. Ebakuntzei dagokie- nez, gure errendimendua %83,3koa izan da, Osakidetza- aholkatutakoaren gainetik.

Bestelako lorpenik izan dituzue?

Odol transfusioetan erabili- tako sistema asko hobetu dugu. Gero eta gaixo gehiagoren kasuan, euren odola berresku- ra eta berrerrabil daiteke. Horrek odol aurrezpena dakar, eta bai- ta gaixoak hemoglobina maila hobek izatea ebakuntzaren ondoren ere.



ISO 9001-2000 KALITATE AGIRIA OSPITALEARI

Erabiltzaileari zerbitzu ona emategatik

Kalitatearen ISO 9001-2000 ziurtagiria eman berri diote Debagoieneko ospitaleari, joan den astelehenean. Jose Luis Angulo ospitaleko gerenteak jaso zuen agiria, Julio Hernandez DNV enpresa europarreko orde- z-kariaren eskutik. Agiri hori jasotzeko bi baldintza bete behar dira: zerbitzuak erabiltzailearen beharretara egokitzea eta hori lortuko duen kalitate sistema abian jartzea. Lau arlotan eginda- ko lanagatik eman diote agiria Debagoieneko ospita- leari: artxibategian, harre- ran, farmazian eta erabi- ltzaileei eskainitako zerbi- tzuan; ospitalearen helburua da laborategian, erradiolo- gian eta anatomia patologi- koan ere agiria lortzea.



OLAIA MONDRAGON

Alderdi politiko gehienetako ordezkariak hartu zuten parte manifestazioan.

Bilguneak deituta, 2.100 lagunek eskatu zuten Enrike Letona askatzea

Bien bitartean, bakartuta jarraitzen du Enrike, Valdemoroko espetxean

AINZANE IRIZAR

Zigorra beteta daukalako, Enrike Letona etxera! lelopean manifestazio isila egin zuten zapatuan Arrasaten Bilguneak deituta. 2.100 bat lagunek hartu zuen parte ekitaldi horretan. Datozen egunotarako ere hainbat ekitaldi antolatu dute Bilguneako kideak.

Aurreko zapatuan, hilak 15, egin zuten Enrike Letona askatzea eskatzeko manifestazioa Arrasateko kaleetan. 2.100 bat lagunek hartu zuen parte manifestazio horretan.

Alderdi politiko gehienetako ordezkariak ere egon ziren; hantxe ziren, besteak beste, Ignacio Lakuntza Arrasateko alkatea, Aralarko Joxe Etxeberria, Xabier Zubizarreta alkate ohia eta Herri Anitza plataformako kidea eta Joseba Ugalde eta Ander Rodriguez Ezker Batukoak. Politikariek batera, Enrikeren senitarteko eta lagun ugari izan zen zapatuan Arrasaten.

Manifestazioa bukatuta, Herriko Plazan, Iñaki Mendi-

guren itzultzaileak Bilgunearen idatzia irakurri zien han elkartutako guztiei. Mezu horretan, Enrike Letonaren egoera zein den azaldu, egoera hori salatu eta bere askatasuna eskatu zuten.

Gogoratu behar dugu 30 urteko espetxe zigorra bete eta gero, maiatzean irten zela kartzelatik Enrike, eta uztailean atxilotu zutela berriro. 1981eko gertakari baten harira atxilotu dute. Bilgunearen esanetan, gehienezko kartzela zigorra bete duenari eta garai bereko delituengatik kondena bete duenari ezin zaio beste kondena bat ezarri.

Gauzak horrela, Letonaren abokatuak helegitea aurkeztu zuten irailean, Auzitegi Nazio-

nalean, baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

BAKARTUTA JARRAITZEN DU

Bien bitartean, bakartuta jarraitzen du Enrike, Valdemoroko espetxean; egunean 20 ordu ematen ditu ziegan, eta lau ordu besterik ez patioan, bakartuta dagoen beste preso batekin.

Agustin Letonak, Enrikeren anaiak, zera azaldu digu: "Gogor eta itzaropentsu dago Enrike, helegitearen erantzunaren zain". Ikasten ere hasi da; espetxean egon zen urteetan unibertsitateko hiru ikasketa egin zituen, eta orain laugarrena egiten hasi da: Filosofia eta Letrak, hain zuzen.

BESTE EKITALDI BATZUK

Datozen egunotarako beste ekitaldi batzuk antolatu ditu Enrike Letona askatzeko Bilguneak. Batetik, datorren asteleheneko osoko bilkuran adierazpen instituzional bat onartuko du udalbatzak. Bestetik, hilaren 29an, hurrengo asteko zapatuan, bertso saioa egingo dute, Letonaren askatasuna eskatzeko.

Agustin anaiaren esanetan, gogor eta itzaropentsu dago Enrike, eta ikasten ere hasi da

DEBAGOIENEAN LABUR

Emakumeen kontrako biolentziaren aurkako eguna dela-eta, hainbat ekitaldi

Azaroaren 25ean Emakumeen tratu txarren kontrako eguna dela eta, *Giza eskubideak, emakumezkoaren eskubideak* hitzaldia egingo du Amnesty International-ek, hilaren 26an, 19:00etan, Bergarako kultura etxean. Hilaren 25ean, BEKEK antolatuta, *Tratu txarrak jasandako emakumeak* hitzaldia egingo dute, 18:30ean. Arrasaten, berriz, etzi, domeka, *Encarnación* ikuskizuna eskainiko dute, 19:30ean, Amaia antzokian. Martitzenerako, bestalde, Emakume Txokoak kale bilkura antolatu du, Herriko Plazan, 19:30ean.

'Goiena.net' ibarreko Interneteko ataria abenduaren 2an aurkeztuko dute Arrasaten

Goiena.net Interneteko ataria aurkeztuko du datorren abenduaren 2an Goienak. Arrasateko Arteaga landetxe-jatetxean egingo dute aurkezpen ekitaldia, 09:30ean. Hantxe izango da, besteak beste, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua. Ibarreko herri guztietako albisteak egunero eta azkartasunez jasotzeko aukera emango digu webgune honek, abendutik aurrera.

Eibar eta Bergara arteko autobide zatia abenduaren 19an edo 20an zabalduko dute

Eibar-Gasteiz autobideko lehendabiziko zatia abenduaren 19an edo 20an zabalduko dutela jakinarazi berri du Gipuzkoako Diputazioak. Eibarren hasi eta Bergarako Ondartza baserriraino doan zatia da hori. Larreategiko zubibideak, baina, errei bakarria izango du noranzko bakoitzerako; izan ere, urtarrilean istripua gertatu zen hantxe, eta zubibide horretan hainbat lan egiten dihardute oraindik. 2004ko udazkenean zabalduko dute zubibide hori.

Lan esparrua euskalduntzeko planez jardun du Emun-ek

Euskara planak 80 enpresak ezarri dituztela esan zuen

A.I.

Arrasateko Emun Lana Euskalduntzeko Kooperatibak, Elhuyar aholkularitzak eta Artez Euskara Zerbitzuak lan esparrua euskalduntzeko egiten diharduten lanaren gaineko prentsaurrekoa egin zuten atzo eguerdian, eguena, Bilbon.

Lan esparrua euskalduntzeko arloan lan egiten dute hiru enpresa horiek; gai hori, hain zuzen ere, izan zuten hizpide eguenean Bilbon eman zuten prentsaurrekoan. Emun kooperatibako Dani Larrea antzuolarrak, Elhuyar-ko Agurtzane Loidi bergararrak eta Artezko zuzendari nagusi Patxi Alañak berba egin zuten prentsaurreko horretan.

Lan esparruan euskara sustatzeko zereginean hasi zirenetik gaur egunera arte egindako lanaren begiratu egin zuten prentsaurrekoan, eta hainbat datu jakinarazi zituzten: gaur egun, 80 enpresatan daude ezarrita euskara planak; horietako 27 enpresak 500 langile baino gehiago dituzte; denera, 43.687 langile daude inplikaturako plan horietan.

Etorkizunaren gainean ere jardun zuten; euskararen normalizazio osoa lortzeko lan esparrua euskalduntzea mende berri honetako apustu estrategikoa dela azpimarratu zuten; bestalde, euskara planetan diharduten enpresek helburu partikularrak izanda ere, denen artean helburu orokorrak sustatu behar dituztela adierazi zuten.

RUMBA

PLATER KONBINATUAK, OGITARTEKOAK...

Obrak direla eta,
orain EXPRES
kafetegian gaude

Maalako Errabala 8, ARRASATE

DISEINU
GRAFIKO A
INPRESIO
DIGITALA

KOH · 943767320
BARENKALE 42
20570 Bergara

gaurtik aurrera zuekin!!

koh@kohdiseinua.com
www.kohdiseinua.com

Hiru arrasatear atxilotu dituzte egunotan Arrasaten eta Frantzian

Bihar, zapatua, eskualde mailako manifestazioa egingo dute Arrasaten

AINTZANE IRIZAR / UBANE MADERA

Oraingo astean hiru arrasatear atxilotu dituzte. Batetik, astelehenean, Igor Letona atxilotu zuten Frantzian; bestetik, Arrasaten, Saioa Alzua eta Gaizka Azkarate atxilotu zituzten, martitzen goizaldean.

Astelehenean Frantziako polizia atxilotu zuen Igor Letona arrasatearra, Mikel Uzkudun donostiarrarekin batera, Agen herritik gertu dagoen errota baten. Polizia iturrien arabera, armak, lehergailuendako piezak, disketeak, dokumentazio eta matrikula faltsuak eta trokelatzeko makina bat atzeman zizkieten errota horretan. Ustez, ETako aparatu logistikoko kide dira biak. Igor Letonak 32 urte ditu eta 1994an ihes egin zuen Arrasatetik.

ARRASATEN BESTE BI ATXILOTU

Martitzen goizaldean, berriz, Saioa Alzua eta Gaizka Azkarate atxilotu zituzten Arrasaten. Polizia operazio horretan hamalau lagun atxilotu dituzte, guztira. Ustezko ETakide Fernandez de Iradiri atzemandako dokumentazioarekin lotzen dituzte guztiak; etorkizunean ETako kide izateko zerrendetan ei zeuden euren izenak. Atxilotuetako beste bat, Xabier Otaegi lasartearra, Oñatiko R. M. Zuazola-Larraña

institutuko irakaslea da. Ikaste-txe horretako ikasle, irakasle eta langileek Otaegiren egoeraren inguruan euren kezka azaldu dute. Eskoriatzako Museo Eskolako Saioa Alzuaren langileek atxilotetak salatu eta giza eskubideak errespetatzea eskatu dute. Debagoieneko Batasunak ere salatu ditu atxilotetak. Atzo, eguna, ziren Garzón epailearen aurrean deklaratzekoak Alzua eta Azkarate.

ZAPATUAN, MANIFESTAZIOA

Atxiloteta horien guztien aurrean, hainbat mobilizazio egin dituzte egunotan. Zapaturako, berriz, Debagoieneko amnistia-aren aldeko mugimenduek manifestazio baterako deialdia egin dute, *Gure delitua euskal herritarra izatea* lelopean. 19:00etan hasiko da, Arrasateko Seber Altube plazan.

Martitzenean atxilotuetako beste batek Oñatin egiten du lan, Lasarten atxilotu zuten arren



Ezker abertzalearen ordezkariak joan zen zapatuko manifestaziora Debagoienetik.

Debagoiendarrak ere izan dira Parisen, Europako Gizarte Foroan

Antxon Mendizabalek eta Jon Sarasuak hitzaldiak egin zituzten

A.I.

Asteburuan egin zuten hainbat alderdi politiko eta gizarte eragilek, Parisen, Europako Gizarte Foroa. Gure ibarretik hainbat lagun joan ziren, foro horretan parte hartuz.

Europako hainbat gizarte mugimenduk antolatuta, Europako II. Gizarte Foroa egin zuten Parisen aurreko asteburuan. Hainbat hitzaldi, manifestazio

eta batzar egin zituzten asteburu osoan Parisen.

Debagoienetik ere hainbat lagun joan ziren Parisera; batzuk manifestazioan parte hartuz eta beste batzuk hitzaldiak egitera. Bergararik, esaterako, ezker abertzaleko hainbat ordezkari joan ziren Parisera, zapatuko manifestazioan parte hartuz. Euskal Herrian Euskaraz, LAB eta Bergara Aurrera plataformako ordezkariak, hain zuzen ere, hantxe egin ziren.

MENDIZABAL ETA SARASUA, HIZLARI

Antxon Mendizabal eta Jon Sarasua debagoiendarrek, berriz, hitzaldi bana egin zuten Gizarte Foroan. Antxon Mendizabal EHUKo irakasle arrasatearrak herrien biziraupena eta globalizazioaren gainean jardun zuen.

Jon Sarasua aretxabaletarrak, berriz, *Hizkuntzen ekologia*-ren gaineko berbaldia egin zuen; hizkuntzak zaintzearen garrantzia azpimarratu zuen berbaldian.



Bidezko produktuak dastatzeko aukera

Harreman Hirugarren Mundua Gobernu Kanpoko Erakundeak ate irekien jardunaldia egin zuen aurreko zapatuan, erakunde horrek Arrasateko Eroskin daukan dendan. Bidezko merkataritza bultzatzeko sortu zuten Harreman eta horixe da Eroskiko dendaren helburua ere. Saltzen dituzten produktuak eta egiten duten lana ezagutarazteko helburuarekin egin zuten zapatuan ate irekien jardunaldia, eta salgai dituzten produktuak dastatzeko aukera izan zuten bertara joan ziren herritarrek: kafea, txokolatea, hainbat edari mota, e.a. /A.I.

EROSKI BIDAIAK

EROSKI BIDAIAK

ZUBIA BERTAN

EROSKI BIDAIAK

MADRID	135€	Prezioa Pertsonako 22.462 Pts
Abenduaren 6etik 8era. 3 egun - 2 gau. Chamartin hotela ****. Gosariak barne. Autobusa. GIDARI LAGUNTZAILEA BARNE.		
JACA	146€	Prezioa Pertsonako 24.292 Pts
Abenduaren 5etik 8era. Altur 5. Ostaua. 4/6rentzako apartamentua 6 lagunekin. 3 EGUNETARAKO ERREMONTEAK CANDANCHUN BARNE.		
ANDORRA	195€	Prezioa Pertsonako 32.445 Pts
Abenduaren 5etik 8era. Erts hotela (Arinsal). 1 OG + 2 PE. ERREMONTEAK 3 EGUNERAKO PAL ARINSALEN BARNE.		
PARIS	165,28€	Prezioa Pertsonako 27.500 Pts
Abenduaren 5etik 8era. Hotela ***. Gosariak barne. Autobusa euskalherriko irteera-lekuetatik. HIRIAREN BISITA PANORAMIKOA BARNE.		

Viajes Eroski Bidaia

Grupo Eroski Kalitatea Bermatuta

eskaintza gehiago www.viajeseroski.es

ANTZUOLA

'La pelota vasca' filma eskainiko dute bihar, zapatua, eskolan

Julio Medemen *La pelota vasca, la piel contra la piedra* filma ikusteko aukera izango dugu bihar, zapatua, Herri Ikastetxeko aretoan, 18:00etan eta 22:00etan.

Urteak dira helduendako zinematik ez dagoela herrian. Hori ikusita, Elkarrrik ekimen hori jarri du abian, herri txikietan ere film hori ikusteko aukera izan dezaten. Filmak "bazterketarik gabeko elkarrizketa eta akordioaren alde" egiten duelako garrantzitsua iruditzen zaio Elkarrirri jendeak ikustea. /E.I.

ARAMAIO

Bi mozio eta sahararrendako laguntza aztertu zituzten bilkuran


Saharar errefuxiatuei laguntzeko 1.200 euroko dirulaguntza onartu zuen udalbatzarrek eguaztenean. Aljerian izandako euriteek eragindako kalteei aurre egiteko da laguntza.

Horrez gainera, bi mozio aztertu zituen. Bata, Gernikako Estatutuaren gainekoa. Oro har, Estatutua aldatzeko zilegitasuna onartzea eskatzen zuten, baita Estatuko Gobernuak Jaurlearitzari erreferenduma egiteko ahalmena ematea ere. Horrekin batera, gay eta lesbiana bikoteen gaineko mozia aztertu zuten. /U.M.

ELGETA

Ur Partzuergoak kudeatuko du ur zerbitzu osoa 2004tik aurrera

Joan zen asteleheneko osoko bilkuran erabaki zuten datorren urteko urtarrilaren 1etik aurrera ur zerbitzuaren kudeaketa osoa Gipuzkoako Ur Partzuergoaren eskuetan uztea. Partzuergoak ipiniko ditu prezioak; hala ere, oraingoz, erabiltzaileek ordaindu beharreko tasek ez dute igoera nabarmenik izango, baina baliteke aurrerantzean aldatzea. Ur Partzuergoak kudeaketa hartzea Udalararen onerako izango da, ardura gutxiago izateaz gain, zerbitzua hobetuko delako. /I.A.



ARRASATE

Arrasateren eta Aramaioren gaineko liburua aurkeztu dute

Aurkeztu dute Arrasateren eta Aramaioren harremanaren gaineko liburua. Josemari Velez de Mendizabal historiagileak idatzitakoa da. *Aramaio eta Arrasate historiak lotutako bi herri* izenburua dauka, eta izenak esaten duen moduan, bi herrien artean mendetan egon den eta dagoen harreman estuaren gainekoa da. XII. mendetik XXI. mendera arteko istorioak batzen ditu: Aramaioko jauntxoaren gainekoa, Arrasateren erreketeta, mitologia... Hori guztiari antzinako argazkiekin eta dokumentuekin lagunduta.

Arrasaten aurkeztu zuten liburua, atzo, eguena. Besteak beste, Ignazio Lakuntza alkateak eta Josemari Velez de Mendizabal idazleak parte hartu zuten. Datorren astean gauza bera egingo dute Aramaion. /U.M.

OÑATI

Bizikleta-zale talde bat bidegorriak bultzatzeko sinadurak batzen dabil

Eguneroko beharretarako bizikleta erabiltzea aldarrikatzen duten hainbat lagun elkartu dira, eta euren helburu nagusia da Oñatirako bidegorria lortzea. Dena dela, bestelako eskakizunak ere badituzte; hala nola, Udalarari eskatzen diote urbanizazio eta bestelako lanak egiten dituztenean, kontuan har dituztela bizikletan ibiltzen diren herritarrak.

Euren aurreneko ekintza izan da bidegorriaren aldeko sinadurak batzea. Kiroldegiko harreraren jarri dituzte orriak eta abenduko lehen astera arte batuko dituzte sinadurak. Gero, sinadura horiek eta euren eskakizunak Udaleko arduradunei aurkezteko asmoa dute.

Bizikleta-zaleen taldeko kide Daniel Enparantzak adierazi digunez, uste zuten baino sinadura gehiago batzen dihardute, eta abenduaren 9an batzarra egiteko asmoa dute; hain zuzen ere, batzarrean era-

bakiko dute talde bat sortu edo ez, baita aurrera begira zer ekimen gehiago egingo dituzten ere.

PLASTIKOA BATZEKO ZERBITZUA

Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteak jakinarazi digunez, datorren martitzenean, hilak 25, batuko dute baserri inguruan sortutako plastikoa, Oñatin. Hona hemen plastikoa lagatzeko tokiak: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgialdain, Asentzio inguruan; Olabarrietan, autobus geltokian eta ETEO atzeko aldean. Hurrengo bilketa eguna abenduaren 23an izango da. /A.I.

Zertzelada

Abenduaren 9an, martitzena, bizikleta-zaleen batzarra egingo dute, eta, hain zuzen, hantxe erabakiko dute taldea osatu edo ez.

BERGARA

Lazpiur lantegiak Zilarrezko Q kalitate ziurtagiria jaso du

Lazpiur enpresak zilarrezko Q-a jaso berri du European Foundation for Quality Management (EFQM) erakundearen eskutik. Ziurtagiri horrek kalitate arloan egindako lana nabarmentzen du.

Construcciones Mecanicas Jose Lazpiur SA 1964an sortu zuten eta gaur egun 90 langilek dihardu

bertan lanean. Lazpiurrek, nagusiki, automobilgintza sektorean egiten du lan, sarrailagintza, linea zuri-ko produktuak eta kosmetikarako lanak ere egiten dituen arren.

Abenduaren 11n jasoko dute Lazpiur enpresako arduradunek saria Donostiako Kursoalen egingo den ekitaldian. /M.B.



Lazpiur lantegian automobilgintzan dihardute nagusiki.

ARETXABALETA

Euskal Herriko historiaren gaineko zikloa irekiko du Kurtzebarri eskolak

Kurtzebarri Eskolak duen ikasketa planen helburuetako bat da Euskal Herriko historia ezagutzea. Horretarako, datorren astean martxan jarriko du beste ziklo bat. Udalarekin eta Nabarralde kultura taldearekin lankidetzan jardunaldi bi gertatu dituzte ikasturte honetarako. Lehenengoa azaroaren 26an egingo dute: Erlantzi Urtasun historialari nafarrak *Euskal erresumaren sorrera* izeneko berbaldia egingo du, 19:00etan, Kurtzebarri eskolako aretoan. Ekitaldia herritar guztiondako izango da. /A.I.

ESKORIATZA

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen azken ikuskizuna aurkeztuko dute

Azaroaren 29an aurkeztuko dute Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizun berria Eskoriatzan, *Poxpolin Marisorgin*, hain zuzen. Sorgin izan gura duen neskato baten istorioa dakarte, aurren, Euskal Herriko pailazo ezagunenek. Gipuzkoako estreinaldia beti Eskoriatzan egin ohi dute, eta aurren ere halaxe izango da.

Axtroki Euskara Elkarteak antolatuta du ikuskizuna, eta sarrerak astelehenean aurrera egongo dira salgai Eskoriatzako Dorleta liburu dendan, ludotekan eta Axtroki EEn. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

Gero eta jende gehiago hurreratzen da Gatz Museora

Gatzagako Gatz Museoak orain dela hiru urte zabaldu zituen ateak. Geroztik lagun asko hurreratu dira gatzaren gaineko jakite- ra. Asteburuetan ohiko bisitaldiak egiten dituzte: zapatuetan 12:00etan eta 17:30ean euskaraz eta 13:00etan eta 18:30ean, berriaz, gaztelaraz. Domeketa goizez bakarrik egiten dira bisitak. Aste barruan talde antolatutako izaten dituzte. Talde bakoitzari ego- kitutako bisitaldiak eskaintzen dituzte arduradunek. Interesatuok deitu 943 71 47 92 zenbakira. /A.G.

Azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da. Horren aitzakian oraingo astean *Emakumeen aurkako eraso-en aurrean, zer?* izenburupean hitzaldia egin du Arrasateko Emakume Txokoan Madrilgo Emakumeen Fundazioko kide Maria Angeles Alvarezek. Berarekin izan gara gai honen gainean berbetan.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Genero Biolentziaren Aurkako Erakunde Feministen Sarearen ordezkari moduan etorri zara. Zein da sare horren zeregina?

Emakume talde batzuk elkartzen dituen sarea da gurea, eta elkarte guztiak koordinatzen ditu. Sareak talde horien alderdi politiko eta errebindikatiboak lantzen ditu batik bat, baina elkarte bakoi-tzak bere zeregin propioa du. Ni Emakumeen Fundazioko kidea naizen aldetik, gure lana prebentzioan oinarritzen da. Biktimekin zuzenean ez dugu lanik egiten. Adituen prestakuntza eta hezkuntza lantzen ditugu, biolentziaren jatorriari eta ondorioei buruzko ikerketak egin... Bestalde, nerabeekin zuzenean jarduten dugu.

Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek zergatik itxaroten dute hainbeste denbora, sufritzen, salaketa egin aurretik?

Arrazoiak asko dira, baina nagusia beldurra da. Emakume hauek mehatxupean bizi dira, eta mehatxu horiek gehienetan bete egiten dituzte erasotzaileek. Hilko dituztela diotenean hil egiten dituzte. Emakumeek hori badakite, beraz, ez dituzte salatzen. Bizi-irauteko mehatxu horietara egokitzen ikasi dute. Hau da, erasotzaileak jarritako baldintzak edo arauak onartuz gero, heriotza arriskutik kanpo geratzen dira, eta hori erabiltzen du askok estrategia modura.

Tratu txarren irtenbidea erasotzaileak zigortzea da?

Arazo honi aurre egiteko bideak oso konplexuak dira, hainbat esparruren eskuragarritasun eskatzen dutenak. Guk beti esaten dugu epaileek, neurri penalek eta sozialek eskusiboki ez dutela arazoa konponduko. Beraz, hainbat arlotatik, neurri bateratuak ipini behar dira abian, eta era berean baita gizartera mezu argiak zabaldu ere. Orain dela gutxira arte emakumeen aurkako biolentzia ez zen delitutzat hartzen, eta hori gizartean islatzen da. Esaterako, eskoletan ikusi dugu nola nerabeek, bai mutilek baita neskek ere, minimizatu egiten duten emakumeen aurkako biolentzia, eta erasoak hainbesterako ez direla esaten dute, gainera.

Emakumeen aurkako erasoak gehitu egin dira ala gehiago salatzen dira?

Bi gauzak gertatzen dira gaur egun. Batetik, salaketa gehiago dago. Bestetik, zenbait gizona erasokor jartzen ari dira emakumeek zenbait esparru gureganatu edo berreskuratu ditugulako. Izan ere, emakumeok berdintasunean elkarrekin bizi nahi dugu, ez arlo publikoan bakarrik baizik eta gure harreman pribatuetan ere. Baina badira gizona erasokor batzuk ez dutenak emakumeon eskari hauen aurrean amore eman nahi.



XABIER URZELAI

Maria Angeles Alvarez

MADRILGO EMAKUMEEN FUNDAZIOKO KIDEA

“Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek ez dituzte salatzen, heriotza mehatxupean bizi direlako”

LAGUNTZA

“Tratu txarrak jasaten dituen emakumea egoera horretatik bakarrik irtetea zaila da; beraz, laguntza eskatu behar luke, betiere arrisku baten aurrean dagoela kontuan hartuta”

EUSKAL HERRIKO KASUAK

“Zazpi emakume hil dira azken lau urteotan, Euskal Herrian, tratu txarrak jasota. Hala ere, genero-biolentzia tasa txikia da beste komunitate batzuekin alderatuta”

Aurrez aipatu duzu orain dela gutxira arte ez direla delitutzat hartu emakumeen aurkako tratu txarrak. Zenbat jipoi jaso behar ditu emakume batek salaketa ipini aurretik?

Orain arte hiru eraso izan behar zuten, elkarrekiko denbora tarte laburrean gertatuak, gainera. Pixkanaka, lege aldetik, gauzak zuzentzen ari diren arren, oraindik asko dago egiteko. Batez ere, gauza bat dago zuzendu beharra: gizarteari jakina-

razi behar zaio emakumei eraso egitea ez dela delitu txikia. Zenbat eta gai honen inguruko kontzientziazio lan handiagoa egin, orduan eta gehiago inplikatu behar lirateke arlo administratibo eta politikotik, apustu politiko serioagoak eginda, eta propaganda hutsezkoak albo batera utzita. Izan ere, ia ezinezkoa da tratu txarrak jasan dituen emakume bat zulo edo arazo horretatik bakarrik, inolako laguntzarik gabe, ateratzea.

Eraso sexualen kasuan maiz entzuten da: “Emakume horrek egingo zuen zerbait”. Zer duzu esateko horri buruz?

Ez dago ezer delitua justifikatzen duenik. Are gutxiago giza eskubideen urrapena justifikatzen duenik. Hala ere, bada gizona erasokor artean sektore bat pentsatzen duena emakume batek ez badu kulturalki inposatu zaion papera betetzen, probokatzen ari dela. Madrilgo udaletxean, esaterako, duela hiru urte, tratu txarrak ematen zituzten hainbat gizona salaketak jarri zituzten. Euren emazte edo bikotekideak salatu zituzten ohea ez egiteagatik, janaririk ez prestatzegatik edo eurekin oheratu nahi ez zutelako. Niri lotsagarria iruditzen zait horrelako salaketak jipoiekin parekatzea.

Hortaz, zer egin behar luke tratu txarrak jasan dituen emakume batek?

Hasteko, argi izan behar du egoera horretatik bakarrik ateratzea oso zaila dela, beraz, laguntza bila jo behar du. Hala ere, bide hori hasten duenean kontziente izan behar du arrisku baten aurrean ipintzen duela bere burua. Hala ere, are arrisku suagoa gerta liteke egoera horri berrari eustea. Honen adierazle dira estatistikak. Garbi azaltzen dute zein diren erasotzaileek hiltzen dituzten emakumeak. Hain zuzen ere, tratu txarrak direla eta banaketa eta dibortzio tramiteak hasten dituztenak eta bizitza berri bati ekin nahi diotenak. Hauek dira arrisku handien duten emakumeak, beraz, babestu behar ditugunak. Horretarako administrazioek badituzte baliabideak. Bestalde, nik neuk emakume hauek animatuko nituzke kasu hauetara bideratutako programa bereziak dituzten emakume taldeekin harremanetan jartzera. Era berean, administrazio publikoei esango nieke arazo sakonetik ezagutzen duten erakundeak dirulaguntzak emateko, erakunde erlijiosoei eman beharrean. Izan ere, hauek emakumeak biolentziaren biktima izatera bideratzen dituzten balioak bultzatzen dituzte.

Estatistikak aipatu dituzu. Zenbat emakume hil dira Euskal Herrian gizona erasotzeko jasotako tratu txarren ondorioz?

Azken lau urteetako datuei erreparatu gero argi ikus daiteke asasinatuek gora egin dutela. 1999tik 2003ko ekainera arte genero-biolentziaren eraginez Espainian hildako emakumeak 315 izan dira. Emaitza hori eman digu prentsan agertutako notizietan oinarrituz egindako ikerketak. 2003ko lehen sei hilabeteetan 45 emakume hil dituzte. Andaluzia da genero-biolentzia kasu gehien dituen komunitatea eta Euskal Herria, berriz, beste hainbatekin batera, beste muturrean dago, askoz ere kasu gutxiago gertatu dira; beraz, zazpi hain zuzen ere, azken lau urteotan. Hala ere, kontuan hartu behar da kasu gehiago dauden lekuetan emakume kopurua ere altuagoa dela.

Legeek nahiko babes ematen diete tratu txarrak jasaten dituzten emakumei?

Ez, ez da nahikoa emakumeok lege aldetik jasotzen dugun babesa. Horregatik sare feminista urtetan eskatzen ari da biolentziaren aurkako lege oso bat. Izan ere, arazoaren kontrako neurrien artean ez dago koordinaziorik. Lege batek, gizarteari mezu argia bidaltzen dioenez, neurri pedagogikoa bada ere, koordinaziorik ezean ez du balio. Beraz, alferrik da biktimen babes agindu bat ematea, gero emakumeak babesteko nahiko polizia ez badago; edo laguntza ekonomikoak emango dituztela esatea, laguntza horiek benetan urriak direnean. Honela, bada, lege eta legegileen aldetik eraginkortasun gehiago eta propaganda gutxiago baino ez dugu eskatzen.

Zabalik

RUFINA
OLASAGASTI

Datozenak

Lehen, gure komunitateak beste lurraldeetara bideratzen zituen ogibiderik ezin eman zien kideak. Ikusi besterik ez dago zenbat euskal jatorriko ditugun munduan zehar.

Hauze bera gertatu da beste komunitate askotan ere: Gaztelatik, Extremaduratik, Andaluziatik, Portugaldik,... Ameriketara joan ziren; Frantziatik Aljeriara eta Kaledonia Berrira; Erresuma Batutik (UK) Asiara eta Afrikara;...

Kasu guztietan bertako biztanleak, "basatiak eta sinesgabeak" omen, gutxietsi egin izan dituzte, haien kultura eta bizimodua baztertu eta berea inposatu dute, "goi mailakoa eta progresista" omen den zibilizazio berral izenean.

Orain, lurralde haietan ere asko dira ogibidea ezin ateratu dutenak. Eta Lurra, guztion bizilekua dena, biribila eta mugatua da, ez da mugagabea. Beraz, hona datozenean hiru aukera dauzkagu: 1) sartzen ez utzi; 2) etortzen utzi eta ahal dutena egiten utzi, toleranteak izan; 3) datozenak errespetuz tratatu, solidarioak izan, Lurra eta kulturak guztion ondarea direla onartu, eta guztiok eskubide bera dugula bizitzeko eta ondare horietaz baliatzeko. Errespetu honek ez du suposatzen geurea ukatzea, baizik geurea bizitzea eta datozenekin, edo eta lehendik etorrita daudenekin, euren bizitzeko aukerak adostea. Batak bestearen hizkuntza eta kultura ezagutzea eta errespetatzea, eta guztiok dugula geure identitatea garatzeko eskubidea onartzea.

Euskaldunok euskaraz bizitzeko pauso asko eman ditugu Debagoienean, eta beste asko emateko ditugu oraindik, helburu hau lortzeko. Baita beste hizkuntza eta kultur komunitateekin, bakoitzak bere nortasuna ukatu gabe, bizitzeko modua asmatzeko ere.

Gutunak

Zumarragako gazte kartzela eta adin txikikoen legea

Zumarragako gazte kartzela 2003ko abuztuaren 30ean jarri zen martxan eta une honetan lau gazte aurkitzen dira barruan arrazoi ezberdinengatik. Espetxearen proiektua PSOEk proposatu bazuen ere 1995ean (Ramon Jauregi Justizia sailburua), PNV izan da aurrera eraman eta gauzatu duena.

Adin txikikoen erantzukizun penalaren legeak 18 urtetik beherako gaztean egin dituzten arau haustek zigortzen ditu. Orain arte, salbuespenak salbuespen, ez dute ondorio penalik izan, hau da, arau haustek familiarrean konpontzera bultzatu izan da, eta kode zibila aplikatuz ezartzen diren zigorrak (kalte ordainak...). Orain, berriz, gazteek egindako arau haustetan beti estatuek sartzen dute eskua eta gazte estatuen aparatatu errepresiboen esku gelditzen da.

Legediaren aldaketa honek zera dakar: gazteari epaiketa egingo zaio eta zigorra ezarri ("teorian" adin txikikoak 72 orduz egon daitezke gehienez atxiloturik eta deklarazio guztiak abokatuen edo gurasoen aurrean egin behar dituzte); legeak izaera zigortzaile-hezitzailea dute, gazteari "gaizki" dagoena "erakutsi" nahi omen zaio; legeak ez du izaera errepresiborik, baizik eta gaztearen birgizarteratzea ei da helburua; gaztearen jarraipena epaile batek egingo du eta lan talde berezi bat izango du bere ondoan (psikologoak...) erabakiak hartzeko orduan.

Adin txikikoen legearen berezitasuna, Audientzia Nazionalen areto bereziaren sorrera izan da. Honen bitartez, arrazoi politikoengatik atxilotutako gazteak Madrileko epaitegi bereziaren esku geldituko dira. Lege hauen bidez, estatuek aurrerapauso errepresibo garrantzitsua eman dute; hemendik aurrera 13-14 urtetik gorako gaz-

teen zaintza familia eremutik atera eta estatuen aparatatu errepresiboen esku gelditu da. Beraz, lege hauek erabiliz, euskal gazte borrokariak euren herritik, senditik, lagunartetik eta ingurune sozialetik urruntzen dituzte onarturik dauden isolamendu mekanismoez baliatuz, gaztea birgizarteratzea aitzakia moduan erabiliz.

Dagoeneko lau gazte espetxeratuta aurkitzen dira terrorismo delituengatik Madrilego Los Rosales espetxean. Bertan bizi duten egoera oso larria da, babes falta ikaragarria pairatzen dute, abokatuak zentroak aukeratzen ditu eta gurasoek ez dute helgiterik. Zigorrak etengabeak dira eta gazteak beren izaeraren arabera sailkatzen dituzte, horrela gazte gatazkariak edo hiperrakibitoak gune bereziagoetara eramanez. Gune hauetan gertatzen dena gehiegizkoa da: tratatu txarrak, torturak eta behar ez dituzten medikamentuen erabilera ere eguneroko ogia dira. Isolamendu ziegetan ere sartzen dituzte ezadostasun jarrera bat azaltzen dutenak.

Egoera hauek guztiak salaketa jarria dute, baina epaileak frogak probatutzat eman baditu ere, epaiketa falta hutsean geratu dira. Hezitzaile hauek ez dira funtzionarioak, erakunde pribatu bateko langileak baizik. Erakunde pribatu hauek, zentroek behar dituzten zerbitzu guztiak eskaintzen dituzte, hezitzaile, segurtasun indar, mantenu, janari zerbitzu... Erakunde pribatu hauek tratatu txarren salaketak jaso dituzte.

Segi erakundeak kartzela politika atzerakoi honen inguruan zera aditzera eman nahi du: ez dugu inoiz espetxe politikan sinetsi eta are gutxiago zigortuak adin txikiko gazteak badira. Birgizarteratzeko proiektu eredugarri baten aurrean gaudela esan digute Gasteiztik behin eta berriro, baina ze proiektu da hori? Tratatu txarrena? Isolamenduarena? Arazo bakoitza zigorrarekin ordaintzearena? Neska eta mutilak banatzearena? Gazteon "heziketa" enpresa pribatu baten eskuetan uztearena? Neska eta mutilak banatzearena? Gazteon "heziketa" enpresa pribatu baten eskuetan

uztearena? Gazteok gizarte honetatik ateratzearena? Ez. Ez dugu hau onartuko!

Estatuek eta euskal gobernua berriro ere aukera bakarra uzten digute errepresioaren aurpegi berri honen aurrean, borroka. Eta argi eduki dezatela gazteok hor egongo garela borrokaren bitartez pauso errepresibo hau mahai gainean jartzeko. Gazteok, inposaketa guztien gainetik hautua egin dugulako gure herria eta bizitzeko eredu propioa eraikiz aurrera egiteko.

ARRASATEKO SEGI
Arrasate

Ai, Maritxu..., ospitalean urologorik ez!

Gure eskualdeko etxebizitzaren salneurriak ikaragarriak dira, punta-puntako enpresa emankorrak ditugu eta langabezia tasa oso txikia ei dugu. Egia ote? Eskualde lehiakor eta europarra da, ISO eta horrelako kalitate ziurtagiriak saritzen dituen; azpiegiturak nahi hainbat ditugu: Lastertasun Handiko Trena, autobidea, autobia eta, agian, tranbia ere bai.

Baina, hori bai, ondoezik jarriz gero ez dadila giltzurrun arazo batengatik izan, gure eskualde ospitalean ez baitago urologorik. Bai, bai, ondo entzun duzue: bat bera ere ez!

Egoera honi aurre egitea dagokionari (zuek alkate jaunak izango duzue zerbait esateko, nahiz eta hauteskundeetan ez egon) esango nioke gizabanakoaren ongizatea aurrekontu bat baino garrantzitsuagoa dela.

A, eta azken ohar bat: Maritxu Kajoi egunaren biharamunean kontuz ibili giltzurrunean koliko batek jotzearekin.

XABIER MOMOTIO
Bergara

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko AzkarateERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkoroberebizbar,
Josemari Velez de MendizabalADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Arantzazu Arana, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)PUBLIZITATEA
Amaia Mundiñano, Mireia Larrañaga,
Natali Martínez, Izaskun Bolinaga,
Ziortza Martín, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban ArantzabalTESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Podiuma

Antonio Merino | ATLETA |

IRATI AGIRREAZALDEGI

Antzuolarra izatez, Durangon bizi da gaur egun. Joan zen domekan Bilboko herri krosean lehenengo iritsi zen helmugara Asier Zarragarekin. Krosean jardundakoa da, baina azkenaldian probak alboratuta ditu.

Bilboko herri krosa irabazi zenuen joan zen domekan, ezta?


Azkenaldian adinaren lagata neuzkan probak, baina oportretan, osasuna zaintze aldera, berriz hasi nintzen korrika eta esan dezaket inertziaz iritsi nintzela Bilboko lasterketara. Ez neukan buruan berriz lehiaketara itzultzea, baina herri lasterketa izanik parte hartzea erabaki nuen. Gainera, irabazi egin nuen; beraz, pozik.

Nolako izan zen Bilboko lasterketa?

Gutxi gorabehera beste proben antzerakoa. Hala ere, federatuta nengoenean nire aurka jarduten zuten korrikalarien falta sumatu nuen. Gaur egun, antxintxikalariek gehiago begiratzen diote izen ona lortzeari edo diruari, beraz, herri probetan askotan maila handiko korrikalariak ez dira izaten. Iaz herri krosak komunikabideetan oihartzun handia izan zuen, eta horrek ere gogoia piztu zidan parte hartzeko.

Nola sentitu zinen proban bertan?

Karreraren hasiera kaotiko xamarra izan zen. Faboritoak lehen ilaran bageunden ere, gure ondoren berehala irten ziren 300 metrora zeuden gaitzako korrikalariak. Lehen lau kilometroak ahal zen moduan egin nituen, espaloietatik edo beste edozein zirrikitutatik jende artean aurrera egitea



GOIENKARIA

Antonio Merino antzuolarra krosean ibili da urte askoan.

“Adinaren lagata neuzkan probak, baina Bilboko herri lasterketa izanik parte hartzea erabaki nuen”

“Korrika egitea beti izan dut gustuko; hala ere, lehen bezala lehiatzeko asmorik ez daukat orain”

zen kontua. Erdi bidean aurreratu zirenei segika nindoan eta zazpigarren kilometroan helmugara nirekin batera iritsi zen Asier Zarraga eta biok bakarrik gindoazen, hirugarrenari ordurako alde dezente aterata. Asier eta biok sarritan elkarrekin entrenatu izan gara, eta, herri lasterketa zenez, sariarik gabea, ez zegoen ezer jokoan. Beraz, azken unean eskutik helduta helmugan elkarrekin sartzea erabaki genuen.

Nolako probak dituzu gogokoak?

Krosa betidanik izan dut gustuko. Batez ere euskal Herrian ezagutzen dugun krosa; eguraldi txarra, belarra, lokatza... Guztiak elkartzen ditu eta azken baten, esentzian, hori da krosa. Gainera, baldintza horietan egin izan ditut entrenamenduak; beraz, ondo moldatu izan naiz krosean. Horrelako ibilbideetan, lokatza zegoenean, gozatu egiten nuen korrika.

Lasterketaren bat aukeratzekotan, zein gustatzen zaizu gehien?

Gutxitan hartu dut parte, baina Behobia-Donostia maratoi erdia aukeratuko nuke, bertan egon ohi den giroarengatik. Bigarren egin nuen behin baita hirugarren ere, baina irabazterik ez dut lortu eta arantzaxo hori oraindik ezin aterata nabil. Gauza bera gertatu zait Euskadiko Kros Txapelketarekin, lau aldiz izan bainaiz txapel-dunorde.


Lehiaketak eta txapelketak alde batera utziak dituzula esan duzu. Betiko ahaztu dituzu?

Sekula ez dago esaterik iturri honetatik urik ez dut edango, baina epe motzean, behintzat, ez naiz federatuko. Beharbada herri lasterketaren bat edo beste egingo dut. Argi daukadan da lehen bezala lehiatzeko asmorik ez dudala. Korrika egitea beti izan dut gogoko, baita orain ere, baina beste zeregin batzuk ere baditut. Lehen egingakoa hori geratuko da, baina orain, besteak beste, familiarekin gozatzeko aprobeztatzen dut denbora librea.

Orain durangon bizi zaren arren, Debagoiena ezagutzen duzu. Badago korrika egiteko toki egokirik ibarrean?

Bergaran badira zenbait leku on, baina negua heldzean argirik eza izaten da oztopo handiena, eta herri barruan ibiltzean, espaloietatik jendea saihestuz joan behar izaten da, baina hori ez da ibarreko kontua bakarrik, leku guztietan gertatzen da. Hala ere, Bergara eta Soraluez artean trenbide zaharra egokitzen ari direla ikusi dut, eta argia jarriz gero korrika egiteko toki aproposa izango da, baita paseatzeko ere.

Kirolabur



JUDO/ARRASATE

Ikasturtea hastez bat, judo entrenamenduei ekin zieten Arrasateko Judo Elkarteko neska-mutilek. Entrenatzen ez ezik lehiari ere hasiak dira. Joan zen zapatuan, azaroaren 15ean, ikasturteko lehenengo txapelketan parte hartzeko aukera izan dute taldeko hiru judokak. Ondarroan neurtu zituzten indarrak eta beraiei abilezia erakutsi eta ondo jardun zutela ikusteko emaitzei begiratu besterik ez dago: Mikel Belasko lehenengo izan zen 33 kiloz azpiko infantiletan; alebinetan, 35 kilotik beherakoetan Igor Hernandezek irabazi zuen eta Enara Beloki bigarren izan zen 41 kiloz azpiko alebinetan.

ENTRENAMENDUA/ARETXABALETA


Aretxabaleako kirol etxean banakako entrenamendu zerbitzua jarri dute abian. Kirolari bakoitzaren helburu, ezaugarri, kirol-lesioen historial, kezkak... jakiteko eta lan dinamika azaltzeko elkarrizketa egingo dute lehenengo, eta gero egoera fisikoa eta osasuna jakiteko osasun azterketa. Hauek pasatuta planifikazioa eta saioen fitxak egingo zaizkie, xehetasunak adierazita (arrieta, intentsitatea, errepikapenak). Azkenik, saioak baloratu, jarraipena egin eta eguneratu egingo dira.

ESKUBALOA/OÑATI


Aloña Mendi-Arrikruz Kobak eskubaloia talde oñatiarra maila nazionalen dihardu. Joan zen asteburuan Trapagako taldearen aurka jardun zuten txantxikuek Zubikoa kiroldegian, eta etxekoak partiduan atzetik joan baziren ere, norgehiagoka berdinduta amaitu zuten (23-23). Hala ere, kontuan hartuta bi taldeak sailkapenean atzeko postuetan daudela, bosna punturekin, partidua berdintzeak ezer gutxirako balio izan zuten bai oñatiarrei baita bizkaitarrei ere.

ATLETISMOA/DEBAGOIENA

Iaz zilarrezko ezteiak bete ostean, zapatuan, azaroaren 22an, jokatu da Donostiako Maratoiaren 26. edizioa. Guztira, ibarreko 51 lagunek jardungo dute Donostian antxintxika, gehienak bergararrak: 16, hain zuzen ere. Tartean izango da maratoiaren edizio guztietan parte hartu duen Angiozarko Bixente Pagaldai ere. Bestalde, azkenaldian lehenengo gipuzkoarra izan den Asier Urdanpilletak ez du aurten proban parte hartuko. Izan ere, mendi maratoiaren munduko txapelketan dihardu, eta gehiegizkoa izango litzateke lasterketa guztietara joatea.




ERLAXA ZAITEZ, ONENAREN ESQUETAN ZAUDE



Eseri eta erlaxatu

Munduko erosoak direnez, Stressless-ko besaulkiek eta sofek erabateko eta berehalako atseden sententzioa eskaintzen dizute. Inoiz baino gehiago, Stressless leku erosoena da etxekoekin batera film bat ikusteko. Plus Sistema™ eskusiboari esker, Stressless-ko produktuak zure gorputzera primeran egokituko dira, bai atseden aktiboko zein etzandako posizioan. Ezaugarri berezi horrek benetako atsedengune bihurtzen du Stressless.



Noche y Dia
Morfeoren besoetan
Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 21 42 24



Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko azaroaren 21a

Kultura
eta
aisialdia



Azaroaren
21etik 28ra

Egurrezko artelanak

Tailagintza erakusketa Arrasaten

Ez du tradizio motza arozgintzak Arrasaten; eta asko dira, azken hamarkadotan, egurra eta gubia zaletasun moduan hartu dituztenak, horietatik abiatuta egurrezko artelanak sortzeko. 1987an sortu zen Mondragoen ARTE taldea, Arrasateko Tailaginen Elkarte, eta herriko kulturaren guztiz errotutako taldea da gaur egun.

Elkartekoen helburu bat da euren zaletasuna herritarroei ezagutzera ematea; horretarako, erakusketa bat dute zabalik Arrasaten abenduaren 3ra arte. Edozeinen eskura dagoen zaletasuna da: behar den bakarra da denbora librea, pazientzia, eta, hori bai, zaletasuna maitasunez hartzea, elkartekoek egiten duten bezala. /14

LEIRE KORTABARRIA

ERAKUSKETAK/ ARRASATEKO TAILAGINEN ELKARTEAREN LANAK HARRESI ARETOAN

Gubiaz eta egurrez, artelanak egin

ARTE TALDEAK ERAKUSKETA ANTOLATU DU MONDRAGOEN, TAILAGINTZA DEBAGOIENDARROI HURBILTZEKO ASMOZ

LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko Tailaginen Elkar-teak hogeit hamar urtetik gora daromatza jardunean; une aproposa, hortaz, ibilbide luze honetako emaitzak erakusteko. Horren asmotan, erakusketa zabaldu dute aste honetan Arrasateko Harresi aretoan. Kide bakoitzak bere emaitza gustukoena aukeratu ditu.

Marrazketa, irudimena eta esku apur batekin, era guztietako egurrezko lanak egiten dituzte ARTE elkarteko 27 bazkideok, eta egurretik abiatuta egin daitezkeen lanen barietatearen eredu bat dugu Harresi aretoan erakusketan. Erlojuak, ispiluak, Euskal Herriko ikurrak, familia-armarrien tailak, denetariko paisaia eta baserrien erreproduzioak... daude ikusgai.

PAZIENTZIA ETA GUSTUA

Beharbada, ikusgai dauden lanei begira, nori edo nori piztuko zaio tailagintzarekiko jakin-mina. Sakondu nahi izanez gero, ARTEK antolatzen dituen hastapen ikastaroren batean izena eman besterik ez du. ARTE elkarteko guztiek zaletasun moduan dute tailagintza; zer behar da, hortaz,



ARTE taldeko 27 kideek egindako eta aukeratutako 127 lan dago erakusketan.

zaletasun horretan ondo jarduteko?: "Ez da aparteko ezer behar; gustu pixka bat, pazientzia eta denbora librea besterik ez. Asko jarraitu behar zaio zaletasunari. Marrazketarako esku pixka bat

ere ondo dator", dio elkarteko presidente Jose Mari Etxabek.

Badirudi baldintza horietatik guztietatik denbora libre ugari izatea dela beharrezkoena, tailok eskatzen duten dedikazioa

dela-eta. Etxabek honela esaten du: "Taila jakin batekin hasten garenetik bukatu arte, hilabeteak pasatzen dira. Batik bat, neguan egiten dugu lan; urtean zehar edo udan, lana dela-eta edo

beste ekintza batzuk direla-eta, elkartekook gutxiago ibiltzen gara". Bestalde, gaur egungo egoitza etxebizitza gune batean dute, akordio bat dute ordu eta egun jakin batzuetan ez ibiltzeko, zarata handiak direla-eta.

IRUDIMENA NAGUSI

Tailagintzan hasi nahi duenak gubiak erosi beharko ditu lehenbizi; hori da zaletasun honen alde garestiena.

Behin tresnak edukita, ordea, tailagilea gertu dago lanerako. Intxaur, haritz edo pago egurra izaten da onena, ARTEkoek dioskutenez; baita gerizarena ere. Hortik aurrera, norberaren irudimena eta askatasuna dira nagusi. Marrazkia egin ondoren, tailari ekitea besterik ez da falta. Bukatutakoan, argizari geruza bat da tailak behar duen apaingarri bakarra.

Mota edo estilo batekoa zein bestekoa izan emaitza, taila lan guztiok dute antzekotasun bat, eta honela azaltzen digu elkarteko presidente Jose Mari Etxabek: "Balio sentimental handiko lanak dira. Horregatik, ez ditugu salgai ipintzen; geuk gordetzeko, familiarendako edo lagunei opari emateko erabiltzen ditugu".

ARTEren bi hamarkadako ibilbidea

ARTE talde finkatua da gaur egun Mondragoen. 1982an hasi zen ARTEren historia: hain zuzen ere, urte hartan, on Jose Maria Arizmendiarririk aroztzintza ikastaro batzuk eman zituen Arrasaten, eta hainbat herritar elkartu ziren lanbide edo zaletasun horren ingurura. Ikastaroak izandako arrakasta ikusita, beste hainbat jardunaldi egin zituzten urtero, 1986ra arte.

Ordurako, tailagintzaren arra barruan zeramaten hainbat herritarrek. Horiek osatu zuten modu formalean ARTE elkar-tea, eta Udalarri egoitza bat eskatu zioten.

1987. urtetik hona, ARTE elkarteak bi helburu nagusi izan ditu: batetik, tailagintza herritarren artean zabaltzea, eta helburu horrekin bi ikastaro antolatzen ditu taldeak urtero. Bigarren helburua da

tailagintza ezagutzera ematea, hau da, emaitzak jendeari helaraztea, eta horretarako, Santo Tomas eguneko azokan parte hartzen dute, eta hainbat erakusketa antolatu dituzte, oraingo hau kasu.

Azkenaldian, ARTEren beste xede bat da egoitza berria lortzea, inori enbarazurik egin barik eta ordutegi muga barik, euren zaletasuna landu ahal izateko.

Lanbidez ere, tailagin

Tailaginok asko maite dute euren zaletasuna, eta gutxi batzuek egin dute saiakera tailagintza zaletasun ez ezik, lanbide moduan ere hartzeko. ARTEn jardundako gutxi batzuek egin izan dute lan tailagin profesional moduan. Gaur egun, ordea, ez dute horretan jarraitzen. "Zaila da tailagintzatik bizi izatea", diosku urte batzuetan horretan lan egin zuen Kepa Uribarren

mondragoetarrak. "Hainbat urte eman ditut tailagin, eta zailena da izena lortzea, norberaren burua ezagutzera ematea. Asko mugitu beharra dago". Kepak dioskunez, ondo ordaintzen dute, errekonozimendua lortuz gero, eta enkar-guz lan egin daiteke. Hori bai, dedikazio handia eskatzen duen lana ere bada; norberak baloratu behar zaletasun edo lanbide moduan nahiago duen.

MESON MANOLO

Taberna eta jatetxea / Eguneko menua / Karta / Koadrila-afarietarako menu bereziak

BERRIZ ERE ZABALIK

Zatoz gaur, barikua, arratsaldeko 7etatik 9etara inauguraziora! Gonbidatuta zaude!

Bañez Doktora 3 ARRASATE Tel.: 943 79 22 40

BERTSOLARITZA/ GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA

AINHOA AGIRREAZALDEGI, GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETAKO PARTE-HARTZAILEA

“Ibarrak talde moduan hartu du parte: lehiakideak, bertso eskolak, antolaketa...”

LEIRE KORTABARRIA

Gipuzkoako Bertso Txapelketa azken txanpari begira dago. Joan den domekan jokatu zen lehenengo finalerdia, Eskoriatzan, eta bertan egon zen Ainhoa Agirreazaldegik bertsolari bergararra ere. Han izandakoak eta hemendik aurrera etor daitezkeenak komentatu dizkigu.

Zelako maila ikusi zenuen Eskoriatzan?

Oso maila altua; egia esan, uste dut maila altuagoa izan zela guk saioa bukatu berri genuen inpresioa baino. Neuri aurreko emanaldiak gustatu zitzaizkidan gehiago, baina kontuan hartu behar da hor faktore asko daudela jokoan: bertsolari bakoitzaren indarra, zortea, publikoa... Pilotalekuan izan zen emanaldia, eta, nire ustez, lekuaren handitasunak ez zien bertsolariari lagundu. Eta balorazioa oso kontu subjektiboa da. Adibidez, iruditu zitzaidan Estitxu Eizagirrek ez zuela egun onena izan, eta aurreko saioetan hobeto moldatu izan zela. Maialen Lujanbio, berriz, primeran ibili zen; izan ere, hura sailkatu zen.

Eskoriatzan bertsolari bakarra sailkatu arren, oraindik besteek badituzte aukerak...

Bai, bai. Hurrengo bi finalerdietan, Zarautzen eta Tolosan, automatikoki lehenengo sailkatua pasatuko da finalera; eta, besteen artean, puntuaketaren arabere

ra egongo da sailkapen bat. Hor-taz, Eskoriatzan aritu zirenen-dako, aukerak zabalik daude.

Publikoa zer moduz portatu zen, bada?

Publiko aldetik ere oso saio ona izan zen. Lehenengo, pilotalekua bete egin zen, aulki guztiak hartuta egon ziren. Sumatzen zen txapelketak, fase horretan, gero eta interes handiagoa pizten zuela, eta kanpoko jende gehiago erakartzeko delat: Bizkaitik, Arabatik, Iparraldetik... etorritako entzuleak zeuden. Bestalde, publiko beroa izan zen, bai.

Bi finalerdi eta final handia besterik ez da falta... Zeintzuk dira zure aurreikuspenak?

“Eskoriatzan maila altua egon zen, lekuaren handitasunak ez lagundu arren”

“Txapelketako finala aukera bikaina izango da lau bertsolari gazte eta iritsi berrirendako”

Aurreko Euskal Herriko Txapelketako finalean egon ziren laurak ikusiko ditugu: Maialen Lujanbio, Jesus Mari Irazu, Aitor Mendiluze eta Jon Maia. Horiek aurpegi ezagunak dira, eta bertsolari elitea osatzen dutenak; baina, horiekin batera, lau izen berri egongo dira, lau bertsolari iritsi berri, eta lau gazte horiek euren aukera izango dute baita ere. Garrantzitsua izango da, eurak erreferentzia bihurtuko direlako, baita euren atzean dauden bertso-eskolak ere.

Ibarrekoon paperarekin gustura zaude?

Nik uste dut maila ona izan dela, nahiz eta beste guztien saioak ezin izan nituen ikusi. Bada, Jokin Labaien eta Ander Lizarralde oso gustura geratu zirela. Ni Enaitz Alustizaren saio berean egon nintzen, eta, txapelketan lehen aldia izateko, oso ondo jardun zuen.

Datorren aldian Debagoieneko parte-hartzaile gehiago egongo direla uste duzu?

Garrantzitsua ez da bertsolari kopurua, baizik eta ibarrekoon parte-hartzea, oso-osorik. Adibidez, bertso eskolen lana eta babesa ikustea bertsolariaren atzetik; eta ibarreko jendearen inplikazioa maila guztietan: antolakuntzan, gai jartzaile moduan –ezin ahaztu Egoitz Aizpuru oñatiarraren lana–, eta abar. Ibarrekoon talde moduan hartu du parte aurten, eta talde zabal horren oinarria hor dago.



Ainhoa Agirreazaldegik aurten txapelketan parte hartu du.

Saio erabakigarrienak

Debagoienez ez da beste saiorik egongo; baina ziur, Ainhoa Agirreazaldegiz gain, ibarreko beste asko inguratuko direla falta diren hiru saioetara. Hurrengo Zarautzen izango da, etzi, domeka,

kiroldegian, 17:00etan; hirugarren finalerdia, berriz, Tolosako Leidor aretoan izango da, hilaren 30ean, hori ere 17:00etan. Horren ostean jakingo da nortzuek jokatuko duten finala, Irungo kiroldegian, abenduaren 14an.

ARGITALPENAK/ ‘ZORIRIK EZ’, IMRE KERTESZ IDAZLEAREN ‘SORSTALANSAG’ EUSKARAZKO BERTSIOA

Nobel saria, euskaraz

ARRASATEKO KULTURA ETXEAN AURKEZTUKO DUTE LANA ABENDUAREN 4AN

LEIRE KORTABARRIA

AEDk eta Elkarlanean argitaletxeak abian jarritako Jokin Zaitegi sariak bere fruitua eman du: iazko Nobel sariaren euskarazko bertsoa.


Datorren astean, abenduaren 4an, eguna, aurkeztuko da *Zoririk ez*, Imre Kertész iazko Literaturako Nobel saridunaren *Sorstalansag*

nobelaren euskarazko bertsoa. Arrasateko kultura etxean izango da, 19:00etan, eta AEDko eta Elkarlanean argitaletxeke ordezkariak eta itzultzailea, Urtzi Urrutikoetxea idazlea, izango dira bertan. Ume batek Holokaustoaren kontakizuna egiten du ukitu autobiografikoa duen nobela horretan.

Ekitaldiaren bigarren zatia izango da Palestinaren inguruko diapositiba emanaldia.

AURTENGO DEIALDIA, ZABALIK

Jokin Zaitegi lehiaketak Nobel saria irabazi duten egileen lanak euskaratzea bultzatzen du. Aurten deialdian, John Maxwell Coetzee hegofrikarraren *Disgrace* eleberria euskarara itzultzea sarituko da, 4.200 euroko sariarekin. Jatorrizko testuaren sei orri AEDn edo Elkarlanean argitaletxean lor ditzakete lehiakideek.



Jokin Ubiernak egin du *Zoririk ez* liburuaren azala.

Azaroak 21-28

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ANTZUOLA

► **Asteburuko jostailu erakusketa-ren gaineko** erakustaldia egongo da etzi, domeka, Olaran etxean, 18:30ean.
► **Irakurtzetasuna: literaturaren funtzioa eta etorkizuna** delako hitzaldia egongo du Aritz Gorrotxategi idazleak egunean, hilak 27, Olaran jauregian, 18:30ean.

ARETXABALETA

► **Bertso bazkaria** egongo da bihar, zapatua, Murualde elkartearen, 14:30ean. Iñaki Murua eta Mikel Mendizabalek parte hartuko dute.

ARRASATE

► **Haur Hezkuntzaren inguruko II. Nazioarteko Jardunaldiak** egongo dira gaur eta bihar, egubakoitza eta zapatua, Amaia Udal Antzokian.
► **Elkarri taldeak** sinadura eta dirulaguntza bilketa antolatu du bihar, zapatua, Eroski ondoko zelaian, 11:00-13:00.
► **Bertso bazkaria** egongo da bihar, zapatua, Uarkapeko tabernan, AED elkartearen 20. urteurrena ospatzeko. Xabier Amurizak eta Jon Mayak hartuko dute parte.
► **Genero Biolentziaren aurkako Eguna** dela-eta, kale-bilkura egongo da azaroaren 25ean, martitzena, herriko plazan, 19:30ean. *Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!* da aukeraturako leloa.

► **Amnesty International taldeak** 2002-2003 txostenaren aurkezpena egongo du azaroaren 25ean, martitzena, udaletxean, 19:00etan.

► **Bideo-forum saioa** egongo da eguaztenean, azaroak 26, Emakume Txokoan. Iciar Bollain zuzendariaren *Amores que matan* film laburra emango dute, eta berbaldia egongo da segidan. 19:00etan izango da.

► **Iraultza baketsuak XXI. menderako** izeneko hitzaldia egongo du Felix Martí irakasle eta UNESCOko kideak datorren egunean, hilak 27, Biteri ikastetxean, 18:30ean.

► **Biteri Ikastetxe Nagusiko** ikasturte hasiera ekitaldia egongo da datorren egubakoitzean, azaroak 28, Amaia Udal Aretoan, 19:00etan.

► **Zer da eta nora doa Euskal Herria? Zer da eta zer ez da euskal musika?** delako berbaldia egongo du Jose Ignazio Luzuriagak datorren egubakoitzean, azaroak 28, Udaletxean, 19:00etan, Arrasate Musikalek antolatuta.

BERGARA

► **Amnesty International** taldearen inguruko hitzaldia egongo da datorren eguaztenean, hilak 26, kultura etxean, 19:00etan.

► **Transeuropa 2001** izeneko Ina Rufo bidaiariaren diapositiba emanaldia egongo da datorren egunean, azaroak 27, UNEDen, 19:30ean. Sarrera doan izango da.

DEBAGOIENA

► **Euskal Herriko Unibertsitateak** bere eskaintza aurkezteko ekitaldia antolatu du datorren martitzenean, azaroak 25, Arrasateko Amaia Udal Antzokian, 18:30ean.

► **Astronomia taldeak** bilera izango du datorren egubakoitzean, azaroak 28, Oñatiko kultura etxean, 19:30ean.

ELGETA

► **Bertso musikatu emanaldia** egongo dute Arantxa Cruz eta Joseba Ramirezek gaur, egubakoitza, Espaloia aretoan, 22:00etan.

ESKORATZA

► **Cosas que diría con sólo mirarla** filmaren emanaldia eta horren gaineko

berbaldia egongo dira gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:30ean, Amuska emakume taldeak antolatuta.

► **Herriko errekek garbitzeko** auzolanak egongo dituzte bihar, zapatua, Gazte Asanbladaren ekimenez. Herriko plazan elkartuko dira, 10:30ean.

OÑATI

► **Kanta afaria** antolatu du Laixanek datorren egubakoitzean, azaroak 28. Afastostean, euskal kantak abestuko dituzte. Izena emateko mugaeguna da azaroak 25. Horretarako, deitu 943 71 63 11 telefonora.

IKASTARROAK

ARRASATE

► **Apainketa tekniken inguruko** jardunaldiak antolatu ditu Eroski Fundazioak hilaren 25ean eta 26an, Monterron jauregian, 16:30ean. Azaroaren 25ean, martitzena, Gabonetako apainketak loreekin zela egin azalduko da. Hilaren 26an, eguaztena, etxea zelan apaindu azalduko da.

JAIK

ANTZUOLA

► **Gaztaina erre jana** egongo da etzi, domeka, herriko plazan, 18:00etan.

ARRASATE

► **Corazón de Encina** elkartearen X. urtemuga dela-eta, hainbat ekintza egongo dira gaur eta bihar. Gaur, egubakoitza, jolasak eta txokolate jana egongo dira arratsaldean; 23:00etan, play-back emanaldia; 00:00etan, elkarte abeslariaren emanaldia. Bihar, zapatua, ohorezko topa egongo dute 13:00etan; 14:30ean, bazkideondako bazkaria egongo da; 19:30ean, antzerki emanaldia; eta 23:30ean, dantzaldia. Ekintza guztiak euren egoitzan izango dira.

ESKORATZA

► **Gaztaina erre eguna** ospatuko dute datorren egunean, hilak 27, Luis Ezeiza ikastetxearen patioan. Eskulan tailerrak, gaztaina erre jana eta txokolate jana egongo dira ume guztiendako. 17:00etan hasiko da ospakizuna.

MUSIKA

ELORRIO

► **Solid! eta Sant Pau 44 Quartet** taldeen jazz-blues emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Ateneoan, 22:30ean.

BERGARA

► **Deadly Snakes eta Black Sheeps** taldeen kontzertua egongo da bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 22:00etan.

► **The Meteors** taldeak joko du bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Never surrender** punk-oi estiloko taldearen kontzertua egongo da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Xavi Escolano, Kaiet eta Balza** disko jartzaileen saioa egongo da bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 01:00etan.

► **Tijuana in Blue eta Silencio Absoluto** taldeek joko dute datorren egubakoitzean, azaroak 28, Jam aretoan, 22:00etan.

ESKORATZA

► **Santa Zeziliaren omenezko kontzertua** eskainiko du herriko Musika Bandak gaur, egubakoitza, parrokan, 20:30ean.



► KONTZERTUAK

OSKORRIK 'DESERTORE' AZKEN DISKOA AURKEZTUKO DU

Oskorri taldeak *Desertore* azken lanaren aurkezpen kontzertua eskainiko du datorren egubakoitzean, azaroak 28, Bergaran. Euskal musikagintzako erreferentzia-talde honek etiketa eta izendapen guztietatik ihes egin du disko berrian, eta euren ibilbide luzeari gainbegiratu egin ondoren, freskotasunaren aldeko apustua egin dute. 13 abestiz osatutako bilduma da; tartean, Harkaitz Cano, Unai Elorriaga eta Andoni Egaña idazlearen testuen bertsisio musikatuak daude. Diskoaren izenburuak azaltzen du taldearen asmoa: "Betebehar sentimental, ideologiko eta estetikoetatik ihes egitea da desertzioa", diote. Emanaldirako sarrerak salgai dituzue Lazkano oinetako dendan, frontoian bertan eta kultura etxean.

Non: Bergarako Udal Pilotalekuan. **Noiz:** azaroaren 28an, egubakoitza. **Ordua:** 22:30ean.

Carrión música, s.a.

- Gitarrak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL



EGUNEKO MENUA

Lehenengo platera
Udaberri-erroilua
Entsalada txinatarra
Eta abar
Bigarren platera
Arroz frijitua hiru deliziarekin
Arroz-fideoak hiru deliziarekin
Eta abar
Hirugarren platera
Oilaskoa almendrekin
Ganbak berdurekin
Eta abar

Prezioa: **5,95 euro.**

Edariak:
ardo, ura, garagardoa edo freskagarriak.
Postrea:
flana, izozkia, fruta, mazedonia, kafea edo tea.

Araba etorbidea 3 ARRASATE

AIPAGARRI

Aitor Mantxola

OÑATI

Aitor Mantxola zinemako argazki zuzendaria da. *Skin deep* film luzean lan hori bete zuen eta film horrek sari bat jaso berri du. Jamaikan egiten den Amerikan jaialdian sari nagusia eman diote *Skin deep*-i. Miami-ko jaialdian ere saritu zuten filma; hortaz, nazioarteko bigarren saria du.



Mikel Laskurain

BERGARA

Hika Teatroak bere azken lana aurkeztu du aste honetan: *Ixa*. Mikel Laskurainek antzezuriko bakarrizketa da *Ixa*, baina bere ondoan protagonista dira baita ikusleria eta Eskorbuto, Fermin Muguruza eta AC/DC taldeen musika ere. Antzezlan ezohikoa dela azaldu dute Hikakoek.



Mikel Etxagibel

ARRASATE

Mikel Etxagibelek Donostiako Zinemaldiko gerente kargua utzi du. "Zuzendaritzarekin elkar ulertzeko arazoak" argudiatu ditu jaialdiko bozeramaile batek arrasatearraren erabakia azaltzeko. Etxagibelek hiru urte eman ditu Zinemaldian lanean eta aurretik ETBn eta Guggenheim museoan aritu zen.



Ibai Etxebeste Rodrigo
Arrasate • Urriaren 30a • 3,200 Kg. Gurasoak: **Asier Etxebeste** (Arrasate) eta **Elena Rodrigo** (Logroño). Argazkian, umea amaren besoetan.




Naia Cubero Boisa
Arrasate • Azaroaren 8a • 2,930 Kg. Gurasoak: **Roberto Cubero** (Arrasate) eta **Ana Boisa** (Arrasate). Argazkian, jaio berria amaren besoetan.




Imanol Aspiazu Romero
Arrasate • Azaroaren 11 • 2,890 Kg. Gurasoak: **Miguel Angel Aspiazu** (Arrasate) eta **Paqui Romero** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.



Amalur Arizabaleta Rodríguez
Arrasate • Azaroaren 12a • 3,200 Kg. Gurasoak: **Baltasar Arizabaleta** (Arrasate) eta **Jone Miren Rodríguez** (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.




Irea Egaña Zumalde
Oñati • Azaroaren 13a • 2,925 Kg. Gurasoak: **Jon Egaña** (Oñati) eta **Karmen Zumalde** (Oñati). Argazkian, jaio berria aitaren besoetan.



Jone Gorosabel
Muruamendiaraz
Arrasate • Azaroaren 13a • 2,810 Kg. Gurasoak: **Joxe** (Arrasate) eta **Miren** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.




Oihane Leibar García
Arrasate • Azaroaren 14a • 3,740 Kg. Gurasoak: **Xabier Leibar** (Soraluze) eta **Ana García** (Portugalete). Argazkian, umea amona Lucía eta aitona Joxerekin.



Peru Mujika Altuna
Bergara • Azaroaren 15a • 3,120 Kg. Gurasoak: **Xabier Mujika** (Bergara) eta **Eider Altuna** (Bergara). Argazkian, jaio berria aitaren besoetan.



Joaquina Yeboles eta **José Fernández** aretxabaletarrek 50 urte bete dituzte ezkondua. 1953ko azaroaren 25ean ezkondu ziren Zamoran, eta duela 40 urte Aretxabaletara etorri ziren. 50. urteurrena ospatzeko bazkaria egingo dute familia guztiarekin. Zorionak!



Mari Mar López de Ipiña eta **Gorka Galdos** arrasatearrak bihar, azaroak 22, ezkonduko dira. Arrasateko udaletxean izango da ezkontza eta horren ondoren familiarekin eta lagunekin ospatuko dute. Koadrila guztiaren partetik, ondo pasa eta zorionak, bikote!



HILDAKOAK

- Mari Carmen Lizarraga Razkin.** Arrasaten, azaroaren 14an. 86 urte.
- Agustina Mondragon Agirrezabal.** Bergaran, azaroaren 14an. 86 urte.
- Alicia Serrano Gómez.** Oñatin, azaroaren 14an. 85 urte.
- Andres Garain Yarza.** Oñatin, azaroaren 14an. 76 urte.
- Fernando Atxa Lezeta.** Aretxabaletan, azaroaren 15ean. 56 urte.
- Damiana Errasti Azkoitia.** Arrasaten, azaroaren 15ean. 89 urte.
- Mercedes Garitano Lizarralde.** Bergaran, azaroaren 16an. 85 urte.
- Felicesimo Domínguez Cañedo.** Arrasaten, azaroaren 16an. 51 urte.
- Ramon Azpeitia Etxeberria.** Bergaran, azaroaren 18an. 80 urte.
- Ramon Urzelai Guridi.** Oñatin, azaroaren 18an. 87 urte.
- Jose Maria Zubia Barrutiabengoa.** Arrasaten, azaroaren 18an. 81 urte.
- Honorio Jorge Herrero.** Arrasaten, azaroaren 19an. 51 urte.

ESKER ONA

Ernesto Millán Barrena

Santa Polan (Alacant) hil zen 2003ko azaroaren 14an, 72 urte zituela.



Samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean: anai-arreba Maria Carmen eta José; koinatu Francisco; eta iloba Natalia, Javier, Noelia eta Patricia.

ESKER ONA

Jesusa Aldekoa Loiti

Bergaran hil zen 2003ko azaroaren 12an, 82 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Fernando Atxa Lezeta

Aretxabaletan hil zen 2003ko azaroaren 15ean, 56 urte zituela.

Zure familiak ez zaitu inoiz ahaztuko.



Familiakoak

URTEURRENA

Juan Arregi Zendoia

Lehen urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 22an, 19:00etan, **Oñatiko Mikel goiaingeruaren** parrokiaren.




Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Higinio Larrañaga Lizarralde

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 23an, 11:30ean, **Antzuolako Errukizko Amaren** parrokiaren.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ASTEBUKAERAKO EGURALDIA



ZAPATUA, 22

Lainoak izango ditugu nagusi zapatuan. Hala ere, euri txikia eta tarteka ekaitza egin dezake. Tenperatura ez da aldatuko edo jaitsi egingo da. Haizea, berriz, mendebaldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Egun euritsua.
Errioxa: Euria nagusi.
Pirinioak: Zaparradak.



DOMEKA, 23

Egun lainotsua izango da. Euri txikia egin dezake eta 1.000 metrotik gora, elurra. Tenperatura minimoa jaitsi egingo da eta maximoa, berriz, igo. Haizea hegoaldeko ibiliko da.

Nafarroako Erribera: Zaparradak.
Errioxa: Egun euritsua.
Pirinioak: Zaparradak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

10,7° C

ILARGIAREN ALDIAK: AZAROA



EGUZKIA: AZAROAREN 23a



URKULUKO URTEGIA

Azkeneko astean egindako zaparradek izan dute eraginik Urkuluko urtegia; aurreko astean %61,5 zen Urkuluko ur maila; oraingo astean, berriz, %62,02.

% 62

BEHARREZKO TELEFONOAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udalzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16

Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34

Laixan / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegi Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegia

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

EUSKARAZKOHEDABIDEAK

GOITB	943 71 23 96 • goitb@goiena.com
Goienkaria	943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com
Arrasate Press	943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com
Berrigara	943 76 03 97 • berrigara@goiena.com
Aretxagazeta	943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com
Goibekokale	943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com
Kontuola	943 76 03 97 • kontuola@goiena.com

Txiritola	943 71 25 11 • txiritola@goiena.com
Ze barri?	943 79 86 21 • zebbarri@goiena.com
Kontzejupetik	943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net
Putz	943 79 42 30 • putz@euskalnet.net
Arrasate Irratia	943 71 17 31 • irratia@goiena.com
Oñati Irratia	943 78 26 17 • irratia@oinati.net
Sustatu.com	943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com

Erakunde
hauen
laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritza

Antzuolako Udala
Aramaio Udala
Aretxabaletako Udala

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Elgetako Udala

Eskoriatzako Udala
Leintz Gatzagako Udala
Oñatiko Udala

Gazte-txartelaren informazioa

Bazenekien Gazte-txartela...?

Eusko Jaurlaritzak gazteei zuzendutako txartel bakarra dela?

Gaur egun beste hainbat txartel aurkituko dituzu merkatuan, baina ez zaitzatela nahastu. Eusko Jaurlaritzak bakarra bultzatzen du: Gazte-txartela. Euskadiko Kutxaren edozein bulegotan edo www.gazteukera.net webgunean eskura dezakezu.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2.300 saltokitan erabil dezakezula?

Gazte-txartelari esker %10 eta %50 bitarteko deskontuak izango dituzu 2.300 gunetan. Dendak, autoeskolak, garraio zerbitzuak, ile-apaindegiak,... Zerrenda amaigabea da. Abantaila horiek non dauden jakiteko Euskadiko Kutxak Gazte-txartelaren gida emango dizu doan.

Gazteendako bakarrik dela?

Gazte-txartela 15 urtetik 26 urte bitarteko gazteei zuzendutako txartel bakarra da. Oraintxe eskuratzen baduzu, 2007ra arte izango duzu erabiltzeko aukera.

Eskuratzeko 10 euro besterik ez duzula ordaindu beharko?

Euskadiko kutxak 10 euroren truke Gazte-txartel bi eskaintzen ditu: Gazte-txartel arrunta eta Multi Gazte-txartela. Arruntarekin deskontuak eta abantailak izango dituzu milaka lekutan. Multiarekin, berriz, hori guztia eta gehiago izango duzu, Gazte-txartel multia finantza txartela ere bada-eta.

Europar, 34 herrialdetan onartutako txartel bakarra dela?

Bidaian zoazen lekura zoazela, aukera izango duzu Gazte-txartelak eskaintzen dizun abantailaz gozatzeko. Bakarra da ia Europa osoan erabil daitekeena.

Edukiz gero, bidaia aseguruia izango duzula doan?

Gazte-txartela aldean edukita lasai asko ibil zaitezke bidaian, Europ Assistance aseguru etxearen bitartez bidaia aseguruia izango duzu-eta munduko edozein bazterretan.

Erabiliz gero, eskiatzera merke-merke joan zaitezkeela?

Gazte-txartelaren jabeek Astunen, Formigalen eta Candanchun eskiatzeko forfaitak bost euro merkeago izango dituzte aurtengo denboraldian. Abantaila honetaz gozatu gura baduzu, deitu lehenbailehen 901 200 000 telefono zenbakira.

Gazte-txartelarekin abantailak nonahi!



Eraman ezazu Gazte-txartela alde guztietara, eta gozatu eskaintzen dizkizun abantaila guztiez.

Eskura ezazu Euskadiko Kutxan

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA





HITZGEZIDUNAK

Luma

	Ubidea	▼	* Izena	▼	Laster, berehala
	Txorien etxea		Langela		
		▶		▼	
	Baliorik gabe	▶			
	Gidari				
Igaro	▼	Gaztainondo-ikatz	▶	▼	
Ereiten duena		* Deitura			
		▼			Potasioa
					Aszetismoa
Alda daitekeena	▶				▼
Emakume izena					
			Osmioa	▶	Sakia, ebakia
			Agurtzeko hitza		
Tarte, bitarte	▶			Z birritan	▶
Entzuten duena				Aintzira	▼
				▼	
Neba	Larunbat	▶			
	Erabat, oso				
	▼		Kirolaren hasiera	▶	
			Aluminioa		
Bigarren bokala	▶	Karratu	▶	▼	
Izugarri, aparteko		Kontsonantea			
		▼			A birritan
					▶

BILABILATZ



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

IXILIK ESKATU

Sartu dira gizon bi tabernara. Bata jarri zan mostadoreko alde baten. Bestia beste puntan. Alako baten, ertz batekoak esatez diarrez beste puntan zeganari:

- I, noiz pagau bisestak zorra?

Juan jako zorduna "akreedoriarengana", eta esatetsa:

- I, nik eskatu neuanian, ixilik eskatu neuan gero e...

BOST DURO ZOR

Urlixa juan zan afari-merienda itxeko asmoz

taberna batera. Epetan ibiltzia gustatzen jakona zan. Eskatu zeban tripaki raziño aundixa ta ardautei-lla ona. Bai ekarri be neskamiak. Ori dana ta gaztai zati aundi bat jan zebanian, 19 pezeta pagatzia tokatzen jakon. Deitu zetsan neska-me barri ari:

- Zu, ekatzuz 6 pezeta.

Bai ekarri be neskamiak. Orduan emotetza pezeta bat neskamiari esanaz:

- Eutsi zuretzat pezeta bat propiña. Eta bestia apuntau kuadernuan: 25 pezeta zorretan.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



Fundación Grupo Eroski

KONTSUMITZAILEARENTZAT


Zein urtetan sortu zen Eroski?

Ez da gaur goizekoa kontsumitzaileen kooperatiben kontua. Hogei-garren mendez geroztik, ugari izan ziren, bai gure eskualdean baita eskualdetik kanpo ere, eta, izan ere, badira oraindik. Hor dago, adibidez, Oñatiko San Migel kooperatiba. Horieta kooperatiba batzuk elkarturik sortu zen bere garaian Eroski. Baina jakin-gote zenuke noiz sortu zen?

- 1943. urtean.
- 1977. urtean.
- 1969. urtean.
- 1982. urtean.

Erantzun zuzena: 1969. urtean.

SOLUZIOAK



A	●	L	E	Z	I	I
I	K	U	A	L	●	●
R	I	K	●	A	N	A
U	T	A	P	Z	●	●
A	E	L	U	Z	N	E
Z	Z	●	E	R	T	●
●	S	O	●	A	O	I
I	A	I	G	A	L	●
K	●	E	L	E	R	E
R	A	L	A	G	●	●
U	L	U	N	●		
A	B	I	A	H		
●	M	●	K	●		

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Dena ondo irtengo zaizu oraingo astean. Aurretik egindako esfortzuen fruituak jasoko dituzu.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Proiektuak ez dira zuk gura zenuen bezala irtengo, errealtatetik ihes egiteko joera daukazu-eta. Hausnartzeko garaia da. Bestalde, lagun batekin haserretu egingo zara.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Arazoak izango dituz nagusiek; izan ere, beste-en gain egoteko joera handia duzu, eta gauzak egiten dituz inori kontsultatu barik.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Oso aste onuragarria lanean, dena ondo irtengo zaizu-eta. Gainera, lagunak alboan izango dituzu. Bestalde, griperik edo katarrorik ez hartzeko, arropa asko jantzi.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Gastatu eta gastatu besterik ez duzu egiten. Bestalde, bidaia labor asko egingo dituz lan kontuengatik; hori dela eta, komeni zaizu autoa errebisatzea.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Askotan esaten duzu ez daukazula nahiko diru; horren ondorioz, ez duzu estimatuko benetan daukazuna eta zaituzte aseko lagunekin eta familiakoen pasatuko dituzun une atseginek.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Ziurtasunik eza, beldurra eta babes nahia. Horien ondorioz, bikotekidearekin arazoak izango dituz; izan ere, egun osoa harekin pasatu gura izango duzu, baina hura estututa sentituko da.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Jendaurrean lan egiten baduzu, ahalegin zaitez lan hori uzten; izan ere, jendeak gogaitu egiten zaituen sententzia duzu, eta, halako baten, burua galdu eta edozer astakeria esan zenietzaieke.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Argitasuna, objektibotasuna eta intuizioa. Horiek erabilia edozein arazo konpon zenezake. Bestalde, barreiatzen duzun energia positiboari esker, bat baino gehiago aholku bila hurreratuko zaizu.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Min emango dizun arren, nahigabeak besterik eman ez dizun pertsona batengandik urrundu egingo zara. Bestalde, hotzeriak eta eztarriko mina izateko joera.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Aldaketa beharra duzu eta estimulu berriak bilatu gura dituz. Edozela ere, argi ibili, benetan estimatzen duzun pertsonaren bat atzean utzi eta epe luzera damutu egingo zaizu-eta.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Ez jokatu arinkeria merkataritza eta finantza kontuetan, ezta kontratuei dagozkien kontuetan ere. Bestalde, nahigabe txikiak izango dituz, zure erruagatik lapurreta txikiak egingo dizkizute-eta.





Mandio
MARTITZENA 25 / 20:30

Garai bateko San Juan festak gogora


Ekaina beti izan da berezia Arrasaten. San Juanetan, garai batean, urte oso-rako indarrak hartzen zituzten herri-tarrek. Baziren hainbat ohitura gaur eza-gutzen ez direnak. Mandiotik berreskura-tuko ditugu ilunabarrean.



Lanabesak
MARTITZENA 25 / 21:15

Oñatiko Zahor txokolate lantegian bisitan

Oñatiko Zahor txokolate lantegian egindako erreportajea emango dute gaurko saioan. Txokolatearen historia laburra eta Zahor txokolatea nola egiten duten, ze produktu gama duten, Gabonetako kanpaina...



Iluntzean
EGUENA 27 / 21:15

Joan Mari Irigoien idazlea, aste honetako gonbidatua

Altzan jaio zen Joan Mari Irigoien idazlea. Realeko lehen taldera ez zen iritsi, baina hainbat urte egin zituen harrobian. Realzalea eta *Babilonia* eta *Lur bat haratago* eleberrien idazlea. Aintzane Gardokik elkarrizketatuko du.



Gatza eta berakatza
EGUNERO / 13:30

Sukaldean ondo moldatzeko gomendio errazak

Sukaldean aritzea gustuko dutenentzat eta gorroto dutenentzat. Edonork presta ditzakeen platerak nola egin erakusten digute ibarreko sukaldariak. Nork bere gustura prestatzeko jaki eta ogi-tarteko goxoak, egunero.

TELEBERRIAK

Urtero mila saio baino gehiago ekoizten dituzte Miramonen

EITBk Miramonen duen egoitzan 1.000 saiotik gora ekoizten dituzte urtero. Aurten, esaterako, 1.040 bat saio egingo dituzte urtea amaitzerako. Hantxe filmatzen dituzte, besteak beste, *Goenkale*, *Esta es mi gente*, *Sorginen Laratza*, *La Gran Evasión* eta *Políticamente incorrecto* saioak.

'Me lo dices o me lo cuentas' saioak Emmy saria jaso dezake

Astelehenean, hilak 24, jakingo dugu ETBko bigarren kateko *Me lo dices o me lo cuentas* saioak Emmy saririk jasoko duen edo ez. Ingalaterrako bi lehiaketa eta Argentinako *Caiga Quien Caiga* saioa izango ditu lehiakide.

ASTEKO PROGRAMAZIOA / Azaroaren 21etik azaroaren 27ra



EGUBAKOITZA 21	ZAPATUA 22	DOMEKA 23	ASTELEHENA 24	MARTITZENA 25	EGUAZTENA 26	EGUENA 27
13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan, herriz herri: Oñati 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Alberto Iñurrategi 17:00 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan, herriz herri: Oñati 16:00 Sarrera doan 16:30 Iluntzean: Alberto Iñurrategi 17:00 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Mandio 14:30 Berriak 15:00 Gaurkoak 15:30 Soinuz blai 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera	13:30 Gatza eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatza eta berakatza 16:30 Emisio amaiera
19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera			19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Mandio 21:00 Gaurkoak 21:15 Lanabesak 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Mandio 23:00 Gaurkoak 23:15 Lanabesak 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	19:45 Gatza eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean 21:45 Gatza eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
21:15 Soinuz blai			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Mandio	15:00 Lanabesak	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Añai erretegia

- Eskaintza** **Nardeaga 32 / ARAMAIO**
945 44 51 01
- Bataio eta jaunartzeak
 - Kintadak
 - Karta
- Berezitasunak**
- Arraina eta okela parrillan
 - Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik



Baster-Alde

- Eskaintza** **Galartza auzoa / ARETXABALETIA**
943 79 24 58
- Menua eta karta
 - Ezkontzak
 - Jangela: 160 lagunendako
 - Jaunartze eta bataioak
 - Kintadak
 - Terraza
 - Aparkalekua
- Astelehenetan itxita**



Bikoitz jatetxea

- Eskaintza** **Garibai auzoa 17 / OÑATI**
943 78 24 83
- Eguneko menua
 - Ogitartekoak
 - Gosariak
 - Plater konbinatuak
 - Razioak
 - Menu bereziak zapatu eguerdian
- Domeketan eta jai egunetan itxita**
Zapatuetan: 11:00-16:00 eta 20:00etatik itxi arte



Dukiena jatetxea

- Eskaintza** **Azkoaga auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 86
- Menua eta karta
 - Jaunartze eta bataioak
 - Enpresa bazkariak
 - Lagun eta familia arteko ospakizunak
- Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
 - Etxeko postreak
- Astelehenetan itxita**



Taberna-Berri jatetxea

- Eskaintza** **Durana 24-26 / ARETXABALETIA**
943 79 20 67 / 943 79 49 41
tabernaberri@terra.es
- Menua
 - Enpresa bazkariak
 - Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
 - Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako
- Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
 - Oreina Oporto saltsan
 - Arrain parrilada



Torrekua jatetxea

- Eskaintza** **Ibargarai 37 / BERGARA**
943 76 50 99
- Eguneroko menua
 - Karta
 - Kintadak
 - Bataio eta jaunartzeak
- Berezitasunak**
- Batik bat arraina
 - Itsaskia
 - Txuletak



Unzueta jatetxea

- Eskaintza** **Zabola auzoa / ARAMAIO**
945 44 50 95
- Eguneroko menua
 - Karta
 - Bataio eta jaunartzeak
 - Lagun afariak
- Berezitasunak**
- Parrilla: Okela eta arraina
 - Etxeko postreak
- Egunero zabalik**



Zotz jatetxea

- Eskaintza** **Zubillaga auzoa 1 / OÑATI**
943 78 35 45
- Eguneroko menua
 - Ogitartekoak
 - Hamarretakoak
- Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan
- Igandetan itxita**

Atzeskua

LEIRE KORTABARRIA

Iñaki Labaka/ Abere-hiltzailea

San Martin eguna pasa berri dugu... Txerria hiltzeko eguna. Zergatik?

Batik bat, baserriarren usadioak dira, eta horiei jarraitzea gustuko dute. Aurten, hiruzpalau txerri hiltzeko deitu didate. Baina, ilbeherarekin, askoz gehiago egongo da: urte batzuetan, hamar; beste batzuetan, hogeitai ere bai... Urtearen arabera doa.

Ziur bakarrik usadio kontua dela?

Bueno, ilbeherak oso modu zorrotzean errespe-

tatzen dituzte baserriarrok, eta badauka, bai, bere azalpena. Adibidez, eguraldia hotzagoa da, eta txorizoa egiteko, urdaiazpikoa ontzeko...

hobea. Okela hobeto kontserbatzen da sasoi horretan, bai.

Baduzu hori jakiteko arrazoirik; izan ere, urte asko daramatzazu lanbide honetan, ezta?

Bai, horrela da; txikitandik ikasi nuen eta Bergarako Udala ganadu-hiltzailea izan nintzen. Gero, herriko hiltegia itxi zutenean, proposatu zidaten herrian udaltzain lan egitea. Nire lanbidea, ordea, abere-

hiltzaile izatea da, eta Debagoieneko hiltegi lanarekin uztartzen dut hau. Oro har, 32 urte daramatzat lanbide honetan.

Zer behar da abere-hiltzaile ona izateko?

Txikitant hastea oso garrantzitsua da, eta irakasle ona izatea alboan. Nire kasuan, baserrian, aitonak eta aitak ere hiltzen zituzten abereak, eta hala ikasi nuen. Halako batean, galdetu zidaten ea ganadu-hiltzaile izan nahi nuen lanbidez; albaiariarekin berba egin genuen, eta hor hasi nintzen.

Urte hauetan guztiotan ikusiko zenuen lan modua zelan joan den aldatzen...

Bai, asko aldatu da; izan ere, lehen, aberea mazoarekin hiltzen genuen, odol-ateratzea egiten genuen lurrean, larrua kendu eta poleaz jasotzen genuen; eta gero zatiketa egiten genuen. Jakina, guztia pultsuan egiten genuen hori guztiori. Orain, modu azkarragoan

eta mekanizatuagoan egiten da. Lehen, lan nekezagoa zen; orain, erraztasun handiagoak dituzte.

Eta gehien hiltzen den ganaduari dagokionez?

Bueno, orain txerria hiltzeko sasoi gaude, bete-betean; baina, Gabonak datozela-eta, gero eta bildots gehiago hiltzea egokituko da. Gabonetan beti lan handia dago. Bestetik, behiak, txahalak... ere hiltzen ditut.

Lehen, txahal-hilketa egiten zenuten osintxuarrok.

Osintxun tradizioa zen, abuztuan, txahal-hilketa plazan egitea, jende aurrean, alegia. Halako batean, Madrildik idatzi ofizial bat iritsi zitzaigun hori debekatzeko. Debekatzeko zutena ez zen ganadua hiltzea, baizik eta lehengo modura egitea, mazoarekin. Hortaz, orain, sasoi hori datorrenean, txahala plazan hil beharrean, zuzenean okela-dendan erosi behar dugu okela.

“Abere-hiltzaile ona izateko, gaztetandik hasia eta irakasle ona behar dira”

“Lan egiteko modua asko aldatu da: lehen, mazoak, poleak... erabiltzen genituen aberea hil, larrutu eta okela zatitzeko”

“San Martinen txerria hiltzeak badu bere zergatia: okela ontzeko sasoi ona da”

► Osintxu / 47 urte / Udaltzaina Bergaran

PIPERRAUTSA

Parlament

Esanguratsua Kataluniako hauteskundeak. Esangura ugariak.

Bat. Parte-hartzea oso europarra izan da, txikia, nahiz asko egon jokoan. Ordezkatu behar zen hogeitaka urtez *president* izandakoa, eta hala ere katalanen hirutik batek ez du ezer jakin nahi izan.

Bi. Alderdi handiak galtzaile izan dira, eta txikiak irabazle. Gehiegi goraiatzeko da egonkortasuna eta gutxiegi txandatzeko abantailak. Agintean luze egonda, alderdiak bihurtzen dira agintean jabe, ahaztu egiten zaie maizter direla.

Hiru. CiU galtzaile izan da, eserleku gehien lortu arren. Ezingo du berriro PPre laguntza gobernatu, eta *Generalitat* ere gal lezake. Hala ere, lortu dute Pujolik gabe Maragalli irabaztea. Duela sei hilabete pentsaezina zen.

Lau. PSC ere galtzaile da, boto gehien jaso arren. Pentsatu beharko du Maragallek nola galdu duen Pujol joan eta gero. Agian ez zen posible irabaztea *Estatut* berria nahi duen Katalunian, Ibarra eta Bono moduko lagunekin.

Bost. Carod deitzen da fenomeno berria. Dendari itxura du, belarri gainean arkatza falta du. Baina arkatza barik, giltza eman diote. Eta erabili egin beharko du, bat edo beste aukeratuta. Dena den, kanpaina aldarrikatu izan du guztien guber-nua, PP barik.

Sei. Guretzat, *balsamo bebé*. Aurrerantzean bi izango gara egungo markoa gainditu nahian. Besterik ez bada, egurra txandaka jasotzeko.

MIKEL IRIZAR

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA
Udala Plaza z/g • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA
Zarugalde 52 • Tel.: 943 79 99 42

ARRASATE

FAGOR

